



UNITED NATIONS

## GURE MUNDUA ERALDATZEA:



## 2030 AGENDA, GARAPEN JASANGARRIRAKO

Dokumentu hau ez da Nazio Batuen argitalpen ofiziala, eta ez da halakotzat hartu behar. Nazio Batuen *Transforming our World: The 2030 Agenda for Sustainable Development* dokumentuaren euskarazko itzulpena da eta UNESCO Etxeak argitaratu du, Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskuzabalari esker.

Jatorrizko izenburua:  
Transforming our World: The 2030 Agenda for Sustainable Development  
Nazio Batuen Erakundeak 2015ean ingelesez argitaratua  
<https://sustainabledevelopment.un.org/post2015/transformingourworld/publication>

Argitaratzailea: UNESCO Etxea



Itzulpena: Bakun S.L.

Euskarazko argitalpena Eusko Jaurlaritzari esker egin da.



**GURE MUNDUA ERALDATZEA:  
2030 AGENDA  
GARAPEN JASANGARRIRAKO**

**A/RES/70/1**



**UNITED NATIONS**

[sustainabledevelopment.un.org](https://sustainabledevelopment.un.org)



# Gure mundua eraldatzea: 2030 Agenda, garapen jasangarrirako

## Hitzaurrea

Agenda hau pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plana da. Helburu du, halaber, bake unibertsala sendotzea, askatasunaren kontzeptu zabalagoaren barruan. Badakigu pobrezia amaitzea, modu eta dimentsio guztietan, muturreko pobrezia barne, munduak duen erronkarik handiena dela eta ezinbestekoa dela garapen jasangarrirako.

Plan hori herrialde eta alde interesdun guztiek ezarriko dute, lankidetzaz-aliantza baten bidez. Seguru gaude gizateria pobrezia nagusikeriatik eta pribazioetatik askatu nahi dugula eta gure planeta osatu eta babestu nahi dugula. Horretarako, beharrezkoak diren neurri ausartak eta eraldatzaileak hartuko ditugu, premia, mundua jasangarritasunaren eta erresilientziaren bidetik berbideratzeko. Bidaia honi elkarrekin ekitean, zin egiten dugu ez dela inor atzean geratuko.

Garapen jasangarrirako 17 helburuek eta gaur adieraziko ditugun 169 erronkek erakusten dute agenda unibertsal handinahi hau zein handia den. Horien bidez, Milurtekoko Garapen Helburuei ekin nahi zaie berriro eta horiek lortu ez zutena lortu nahi da. Halaber, errealitate bilakatu nahi dira pertsona guztien giza eskubideak eta berdintasuna lortu nahi da generoen artean, baita emakume eta neskatu guztien ahalduntzea ere. Helburuak eta erronkak integratuak eta banaezinak dira, eta garapen jasangarriaren hiru dimentsioak batzen dituzte: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa.

Helburuak eta erronkak izango dira datozen 15 urteotan gizateriarentzat eta planetarentzat garrantzi kritikoko esferetan ekintzak suspertuko dituztenak.

## Pertsonak

Pobrezia eta goseari amaiera eman nahi diegu, modu eta dimentsio guztietan, eta gizaki orok bere ahalmena duintasunez eta berdintasunean eta ingurumen osasungarrian gauzatu ahal izatea bermatu nahi dugu.

## Planeta

Planeta narriaduratik babestu nahi dugu, kontsumo eta ekoizpen jasangarriaren, natura-baliabideen kudeaketa jasangarriaren eta klima-aldaketari aurre egiteko premiazko neurrien bidez ere; horrela, egungo eta etorkizuneko beharrei erantzun ahalko zaie.

## Oparotasuna

Gizaki orok bizitza oparoa eta osoa izan ahal izatea bermatu nahi dugu, eta bilakaera ekonomikoa, soziala eta teknologikoa naturarekin harmonian gertatu ahal izatea.

## Bakea

Gizarte baketsuak, bidezkoak eta inklusiboak sustatuko ditugu, izurik eta indarkeriarik gabeko gizarteak. Ezin da garapen jasangarririk egon, bakerik gabe, ez eta bakea ere, garapen jasangarririk gabe.

## **Aliantzak**

Agenda hau Garapen Jasangarrirako Mundu Aliantza indartsu baten bidez ezartzeko behar diren baliabideak mobilizatuko ditugu; aliantza hori munduan elkartasun gehiagoko espirituan oinarrituko da eta pobreenen eta ahulenen beharretan zentratuko da batez ere, herrialde guztien, alde interesdun guztien eta pertsona guztien lankidetzarekin.

Garapen jasangarrirako helburuen eta izaera integratuaren arteko loturak oso garrantzitsuak dira, Agenda berriaren helburua betetzeko. Agendaren alderdi guztietan lortu nahi duguna lortzen badugu, nabarmen hobetuko dira pertsona guztien bizi-baldintzak eta gure mundua leku hobe bilakatuko da.

## **Adierazpena**

### **Sarrera**

1. Estatuko eta Gobernuko buru eta goi-ordezkariek, Nazio Batuen egoitzan, New Yorken, 2015eko irailaren 25etik 27ra bitartean batu gara, Erakundearen hirurogeita hamargarren urteurrenarekin bat, eta gaur erabaki ditugu mundu-mailako Garapen Jasangarrirako Helburu berriak.
2. Gure zerbitzupean dauden herrien izenean, erabaki historikoa hartu dugu helburu eta erronka unibertsal eta eraldatzaile batzuen inguruan, garrantzi handikoak eta pertsonetan zentratzen direnak. Konpromisoa hartzen dugu atsedenik gabe lan egiteko, gaurtik 2030era Agenda hau erabat ezartzeko. Badakigu pobrezia amaitzea, modu eta dimentsio guztietan, muturreko pobrezia barne, dela munduak duen erronkarik handiena eta ezinbestekoa dela garapen jasangarrirako. Konpromisoa hartzen dugu garapen jasangarria lortzeko, hiru dimentsioetan –ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa–, orekaz eta integratuta. Halaber, Milurtekoko Garapen Helburuen lorpenak aprobetxatuko ditugu eta aztertu gabe dauden gaiak aztertzen saiatuko gara.
3. Mundu guztiko pobrezia-ekin eta gosearekin amaitu nahi dugu gaurtik eta 2030era arte, herrialdeen barruan eta horien artean desberdintasunei aurre egingo diegu, gizarte baketsuak, bidezkoak eta inklusiboak sortuko ditugu, giza eskubideak babestuko ditugu eta generoen artean berdintasuna sustatuko dugu, bai eta emakumeen eta neskatuen ahalduntzea ere, eta planetaren eta natura-baliabideen babes jasangarria bermatuko dugu. Halaber, hazkunde ekonomiko jasangarrirako, inklusiborako eta eutsirako behar diren baldintzak sortuko ditugu, baita oparotasun partekatua eta guztiontzako lan duina ere, kontuan hartuta garapen- eta gaitasun-maila nazionalak.
4. Bidaia honi elkarrekin ekitean, zin egiten dugu ez dela inor atzean geratuko. Badakigu gizakien duintasuna funtsezkoa dela; beraz, helburuak eta erronkak nazio guztietan eta herri guztietan eta gizarteko sektore guztientzat bete daitezen nahi dugu, eta ahalegina egingo dugu lehendabizi atzeratuenetara heltzeko.
5. Agenda honen irismenak eta garrantziak ez du aurrekaririk. Herrialde guztiek onartzen dute eta horiei guztiei aplikatzen zaie, baina kontuan hartuta bakoitzaren errealitateak, gaitasunak eta garapen-mailak, eta

bakoitzaren politika eta lehentasun nazionalak aintzat hartuta. Helburu eta erronka hauek unibertsalak dira eta mundu osoan dute eragina, bai herrialde garatuetan bai garapen-bidean dauden herrialdeetan; integratuak eta banaezinak dira, eta garapen jasangarriaren hiru dimentsioak elkartzen dituzte.

6. Helburuak eta erronkak bi urte baino gehiagoz kontsulta publikoko eta gizarte zibilarekiko eta mundu osoan interesa duten beste alde batzuekiko elkarerragineko prozesu trinkoa egitearen emaitza dira; prozesu horretan, kontuan izan zen, bereziki, pobreenen eta ahulenen iritzia. Kontsulten barruan Garapen Jasangarrirako Helburuei buruzko Biltzar Orokorraren Lantalde Irekiak eta Nazio Batuek egindako lan baliotsua jaso zen; idazkari nagusiak laburpen-txostena aurkeztu zuen 2014ko abenduan.

### **Gure etorkizuneko ikuspegia**

7. Helburu eta erronka horien artean etorkizuneko ikuspegia azaltzen dugu, handinahia eta eraldatzailea. Pobreziarik, goserik, gaixotasun eta pribaziorik gabeko mundua nahi dugu, non bizimodu guztiek aurrera egin dezaketen. Izurik eta indarkeriarik gabeko mundua nahi dugu; alfabetatze unibertsala duen mundua, bidezkoa dena eta maila guztietan kalitatezko hezkuntzara, osasun-laguntzara eta gizarte-babesera zabaldua dagoena, non ongizate fisikoa, mentala eta soziala bermatuta dauden. Edateko uraren eta saneamenduaren giza eskubideen gainean ditugun konpromisoak berresteko mundua nahi dugu, higiene hobea duena eta non elikagaiak nahikoak, ez kaltegarriak, eskuragarriak eta nutritiboak diren; non giza habitatak seguruak, indartsuak eta jasangarriak diren eta non energia-hornidura eskuragarriko, fidagarriko eta jasangarriko sarbide unibertsala dagoen.

8. Lortu nahi dugun munduan giza eskubideen errespetua eta pertsonen duintasuna, zuzenbide-estatua, justizia, berdintasuna eta diskriminaziorik eza unibertsala da; arrazak, jatorri etnikoa eta kultura-aniztasuna errespetatzen dituen mundua nahi dugu, non aukera-berdintasuna dagoen giza baliabideak erabat gauzatu ahal izateko eta oparotasun partekatua izateko; non haurtzaroan inbertitzen duen eta non ume guztiak indarkeriarik eta esplotaziorik gabe hazten diren; non emakume eta neskato guztiek erabateko berdintasuna duten generoen artean eta beren ahaldundutzea eragozten duten oztopo juridiko, sozial eta ekonomiko guztiak ezabatu diren. Bidezko mundua nahi dugu, tolerantzia, irekia eta sozialki inklusiboa, non ahulenen beharrei erantzuten zaien.

9. Herrialde bakoitzak eutsitako hazkunde ekonomikoa, inklusiboa eta jasangarria eta guztiontzako lan duina duen mundua nahi dugu; non kontsumo- eta ekoizpen-modalitateak jasangarriak diren, bai eta natura-baliabide guztien erabilera ere, besteak beste, airea, lurrak, ibaiak, lakuak eta akuiferoak, ozeanoak eta itsasoak; non demokrazia, gobernamentu ona eta zuzenbide-estatua, nazio- eta nazioarte-mailako ingurune egokiarekin batera, garapen jasangarriaren funtsezko elementuak diren, eutsitako hazkunde ekonomikoa eta inklusiboa, garapen soziala, ingurumenaren babesa eta pobreziaren eta gosearen amaiera barne; non teknologien garapenak eta aplikazioak klima eta biodibertsitatea errespetatzen dituen eta indartsuak diren; non gizateria naturarekin harmonian bizi den eta basoko flora eta fauna eta beste izaki bizidunen espezie batzuk babesten diren.

## **Gure printzipioak eta baterako konpromisoak**

10. Agenda berria Nazio Batuen Gutunaren asmo eta printzipioetan oinarritzen da, nazioarteko zuzenbidearen erabateko errespetua barne. Oinarri ditu Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, giza eskubideen nazioarteko itunak, Milurtekoko Adierazpena eta Munduko Goi Bilerako 2015eko Amaierako Dokumentua. Era berean, beste tresna batzuetan oinarritzen da, esaterako, Garapenerako Eskubidearen Adierazpenean.

11. Nazio Batuen konferentzia eta goi-bilera guztien emaitzak berresten ditugu, garapen jasangarrirako oinarri sendoa ezarri dutenak eta Agenda berria eratzten lagundu dutenak, zehazki, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Adierazpena, Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi-bilera, Gizarte Garapenari buruzko Munduko Goi Bilera, Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programa, Pekineko Ekintza Plataforma eta Garapen Jasangarriari buruzko Nazio Batuen Konferentzia. Halaber, konferentzia horien jarraipen-jarduerak berresten ditugu, honako hauen emaitzak barne: Aurrerapen Txikieneko Herrialdeei buruzko Nazio Batuak, Garapen bidean dauden Uharte Estatu Txikiei buruzko Nazioarteko Hirugarren Konferentzia, Garapen bidean dauden Kostalderik Gabeko Herrialdeei buruzko Nazio Batuen Bigarren Konferentzia eta Hondamenen Arriskua Murrizteari buruzko Nazio Batuen Munduko Hirugarren Konferentzia.

12. Berretsi egiten ditugu Ingurumenari buruzko Rioko Adierazpenaren printzipio guztiak, besteak beste, baterako baina bereizitako erantzukizunena, adierazpen horren 7. printzipioan adierazten dena.

13. Konferentzia nagusi eta goi-bilera horietan aipatutako erronka eta konpromisoak elkarri lotuta daude, eta soluzio integratuak behar dituzte. Eraginkortasunez heltzeko, beste ikuspegi bat behar da. Garapen jasangarriak abiapuntu du honakoak elkarri lotuta daudela eta elkarren arteko mendekotasuna dutela: pobrezia modu eta dimentsio guztiekin amaitzea, herrialdeen barruan eta beren artean desberdintasunaren aurka borrokatzea, planeta babestea, eutsitako hazkunde ekonomikoa, inklusiboa eta jasangarria sortzea eta gizarte-inklusioa.

## **Gaur egungo mundua**

14. Batu garen une honetan, garapen jasangarriak erronka handiak ditu. Milioika mila herritarrek jarraitzen dute pobrezian bizitzen, bizitza duinaz gabetuta. Gero eta gehiago dira desberdintasunak, bai herrialdeen barruan bai horien artean. Desberdintasun handiak daude, aukerei, aberastasunari eta botereari dagokienez. Generoen arteko desberdintasunak jarraitzen du funtsezko erronka izaten. Oso kezagarria da langabezia, batez ere gazteen artean. Osasunerako munduko arriskuek, natura-hondamendiak gero eta sarriago eta intentsitate gehiagoz gertatzeak, gatazken igoerak, estremismo indartsuak, terrorismoak eta ondoriozko krisi humanitarioek eta herritarren nahitaezko lekualdatzeek azken hamarkadetan lortutako garapen-arloko aurrerakuntza asko baliogabetzearekin egiten dute mehatxu. Natura-baliabideak agortzeak eta ingurumenaren narriaduraren efektu negatiboek, desertifikazioak, lehorteak, lurraren narriadurak, ur gozoaren eskasiak eta biodibertsitatearen galerak gora egin dute eta gizateriak aurrez aurre dituen zailtasunak larriagotzen dituzte. Klima-aldaketa gure garaiko erronka handienetako bat da, eta haren kontrako efektuek herrialde guztiek garapen jasangarria lortzeko duten gaitasuna kaltetzen dute. Tenperatura globalaren



igoera, itsasoaren mailaren igoera, ozeanoen azidotzea eta klima-aldaketaren beste efektu batzuk eragin larria izaten ari dira kostaldeetako gunetan eta altitude gutxiko kostaldeko herrialdeetan, aurrerapen txikieneko herrialde eta garapen-bidean dauden uharte-estatu ugari barne. Arriskuan dago sozietate askoren biziraupena, bai eta planetaren euskarri biologikoaren sistemena ere.

15. Hala ere, aukera ugari ematen dituen unea ere bada. Aurrerakuntza esanguratsuak lortu dira, garapen-arazo askori aurre egiteko. Azken belaunaldian, ehunka milioi pertsona irten dira muturreko pobreziatik. Gora egin du, nabarmen, umeen hezkuntzarako sarbideak. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien zabalkundeak eta munduko interkonexioak aukera handiak ematen ditu giza bilakaera bizkortzeko, eten digitala gainditzeko eta ezagutzaren gizarteak garatzeko, eta gauza bera gertatzen da berrikuntza zientifikoarekin eta teknologikoarekin hainbat eremutan, besteak beste, medikuntzan eta energian.

16. Duela ia 15 urte, Milurtekoko Garapen Helburuak adostu ziren, eta horiek garapenerako esparru garrantzitsua eman zuten. Halaber, bilakaera esanguratsuak egon dira hainbat esferatan. Hala ere, aurrerakuntzak desberdinak izan dira, batez ere Afrikan, aurrerapen txikieneko herrialdeetan, garapen-bidean dauden kostalderik gabeko herrialdeetan eta garapen-bidean dauden uharte-estatuetan, eta Milurtekoko Garapen Helburuetako batzuk lortzetik urruti daude, besteak beste, amaren, jaioberriaren eta haurren osasunarekin eta ugalketa-osasunarekin lotutakoak. Konpromisoa hartzen dugu, berriz ere, osorik betetzeko Milurtekoko Garapen Helburuak, lortzetik urruti daudenak ere; bereziki, laguntza bereziagoa eta zabalagoa emateko aurrerapen txikieneko herrialdeei eta egoera berezietan dauden herrialdeei, laguntza-programen arabera. Agenda berria Milurtekoko Garapen Helburuetan oinarritzen da eta horien bidez lortu ez zena lortzea du xede, bereziki ahulenengana heltzeko.

17. Gaur iragartzen dugun esparruak, baina, Milurtekoko Garapen Helburuak gainditzeko dituzten irismena du. Garapen-lehentasan batzuei eusten zaie, besteak beste, pobreziarekin amaitzea, osasuna, hezkuntza eta elikadura-segurtasuna eta nutrizioa, baina, gainera, helburu ekonomiko, sozial eta ingurumeneko ugari ezartzen dira. Gizarte baketsuago eta inklusiboagoak ere agintzen dira eta, are garrantzitsuagoa dena, ezarpen-baliabideak zehazten dira. Hitzartu dugun ikuspegi integratuaren isla gisa, helburu eta erronka berriak elkarri oso lotuta daude, zeharkako elementu ugariaren bidez elkartuta.

### **Agenda berria**

18. Gaur garapen jasangarrirako 167 helburu eta 169 helburu konexo, integratu eta bereizezin aurkeztu ditugu. Orain arte, sekula ez dira munduko liderrak baterako ekintza eta zeregin batekin konprometitu, politiken agenda hain zabalaren eta unibertsalaren alde. Elkarrekin ekingo diogu garapen jasangarrirako bideari, elkarrekin helduta munduko garapena eta guztiak onuragarri irtengo diren lankidetzak lortzeko; onura handiak ekar diezazkieke horrek herrialde eta munduko alde guztiei. Berretsi nahi dugu estatu bakoitzak erabateko burujabetza jasangarria duela bere aberastasunaren osotasunaren, natura-baliabideen eta jarduera ekonomikoaren gainean, eta libreki gauzatuko duela. Agenda guztion intereserako ezarriko dugu, egungo eta etorkizuneko belaunaldien intereserako. Aldi berean, nazioarteko zuzenbideari atxikitzen gataizkiola berresten dugu, eta agerian jartzen dugu

Agenda estatuen eskubide eta betebeharrekin modu bateragarrian ezarriko dela, nazioarteko zuzenbideari jarraiki.

19. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren garrantzia berresten dugu, bai eta giza eskubideei eta nazioarteko eskubideari buruzko beste nazioarteko tresna batzuen ere. Nabarmendu nahi dugu, Nazio Batuen Gutunarekin bat etorritik, estatu guztiek dutela giza eskubideak eta pertsona ororen oinarritzko askatasunak errespetatzeko, babesteko eta sustatzeko erantzukizuna, arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelako iritzi, jatorri nazional edo sozial, posizio ekonomiko, jaiotza, desgaitasun edo bestelako baldintzagatiko bereizketarik egin gabe.

20. Generoen artean berdintasuna eta emakumeen eta neskatuen ahalduzkoa lortzea lagunduko du, erabat, aurrera egiten, helburu eta erronka guztietan. Ez da posible giza potentzial guztia gauzatzea eta garapen jasagarria lortzea, baldin eta gizateriaren erdiari giza eskubideak eta aukerak erabat baliatzea ukatzen bazaio. Emakumeek eta neskatuek kalitatezko hezkuntzara, baliabide ekonomikoetara eta parte-hartze politikora jotzeko aukera bera izan behar dute, bai eta gizonen eta mutikoen aukera berak ere enpleguan, lidergoan eta maila guztietako erabakiak hartzean. Generoen artean desberdintasuna leuntzeko inbertsio gehiago lortzeko eta erakundeei mundu-, eskualde- eta nazio-mailan berdintasunarekin eta emakumeen ahalduzkoekin lotutako laguntza sendotzeko lan egingo dugu. Emakumeen eta neskatuen aurkako diskriminazio eta indarkeria modu guztiak ezabatuko dira, baita gizonen eta mutikoen parte-hartzearen bidez ere. Agendaren ezarpenen genero-ikuspegiaren sistematika sartzea ezinbestekoa da.

21. Helburu eta erronka horiek 2016ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean, eta hurrengo 15 urteotan hartzen ditugun erabakiak gidatuko dituzte. Guztiok egingo dugu lan Agenda geure herrialdeen barruan eta eskualdeko eta munduko planoetan ezartzeko, kontuan hartuta herrialde bakoitzaren errealitateak, gaitasunak eta garapen-mailak, eta politika eta lehentasun nazionalak errespetatuz. Halaber, eutsitako hazkunde ekonomikorako, inklusiboa eta jasagarria denerako, arauzko marjina nazionala beteko dugu, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan, baina betiere nazioarteko arau eta konpromisoekin bat etorritik. Gainera, garapen jasagarriko eskualdeko eta azpieskualdeko dimentsioek, eskualdeko integrazio ekonomikoak eta interkonektibitateak duten garrantzia aitortzen dugu. Eskualdeko eta azpieskualdeko esparruen bidez, beharbada errazagoa izango da garapen jasagarriko politikak nazio-mailan neurri zehatz bilakatzea.

22. Herrialde bakoitzak erronka bereziak ditu garapen jasagarria lortzeko, baina arreta berezia eskaini behar zaie herrialde ahulenei eta, zehazki, Afrikako herrialdeei, aurrerapen txikieneko herrialdeei, garapen-bidean dauden kostalderik gabeko herrialdeei eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiei, bai eta gatazkan eta gatazka baten ostean dauden herrialdeei ere. Diru-sarrera ertainak dituzten herrialde asko ere zailtasun larriak bizitzen ari dira.

23. Pertsona ahulak ahalduzko behar dira. Hori dela eta, Agenda honek ume guztien, gazte guztien, desgaitasunen bat duten pertsonen (% 80 baino gehiago pobrezian bizi dira), GIB/HIESarekin bizi diren pertsonen, adineko pertsonen, herri indigenen, errefuxiatuen eta barneko desplazatuen eta migratzaileen beharrak islatzen ditu, besteak beste. Erabaki dugu ekintza eta neurri eraginkor gehiagori ekingo diegula, nazioarteko zuzenbidearekin bat, oztopoak eta murrizketak ezabatzeko, larrialdi humanitario konplexuen

eraginpeko eremuetan eta terrorismoaren eraginpean bizi diren pertsonen emandako laguntzak indartzeko eta beren premia bereziei erantzuteko.

24. Konpromisoa hartzen dugu pobrezia-amaiera emateko, forma eta dimentsio guztietan, eta horrek ekarriko du muturreko pobrezia-amaiera emateko, hemendik 2030era. Pertsona orok izan behar du oinarritzeko bizi-maila, baita gizarte-babeseko sistemen bidez bada ere. Halaber, goseari amaiera eman eta elikadura-segurtasuna lehentasun gisa lortuko dugu, eta malnutrizioaren modu guztiak ezabatuko ditugu. Horren harira, Munduko Elikadura Segurtasuneko Batzordearen zeregin garrantzitsua berresten dugu, bai eta bere izaera inklusiboa ere, eta bere onespenez egiten dugu bat Nutrizioari eta Ekintza Esparruari buruzko Erromako Adierazpenarekin. Baliabideen bidez landa-gunea, nekazaritza eta arrantza jasangarriak garatuko ditugu, eta nekazari txikiei lagunduko diegu, bereziki emakumezko nekazariak, eta garapen-bidean dauden herrialdeetako abeltzain eta arrantzaleei, bereziki aurrerapen txikieneko herrialdeetakoak.

25. Konpromisoa hartzen dugu kalitatezko hezkuntza, inklusiboa eta berdintasunean oinarritzen dena emateko, maila guztietan: eskolaurreko irakaskuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, hirugarren hezkuntza eta prestakuntza tekniko eta lanbide-prestakuntza. Pertsona guztiek, sexua, arraza edo jatorri-etnikoa edozein dela ere, desgaitasunen bat duten pertsonak, migratzaileak, herri indigenak, umeak eta gazteak barne, batez ere ahultasun-egoeran badaude, bidea izan behar dute dauzkaten aukerak aprobetxatzeko eta gizarte osotasunean parte hartzeko beharrezko ezagutzak eta gaitzak eskuratzen lagunduko dieten ikaskuntza-aukera jasangarriak izateko. Ahalegina egingo dugu ume eta gazteei beren eskubideak eta gaitasunak osorik gauzatzeko ingurune egokia emateko eta, horretarako, gure herrialdeei lagunduko diegu dibidendu demografikoari probetxu ateratzen, bai eta eskoletako segurtasunaren eta komunitate eta familien kohesioaren bidez ere.

26. Osasuna eta ongizate fisiko eta mentala sustatzeko eta pertsona ororen bizi-itxaropena luzatzeko, lortu behar dugu osasun-estaldura eta kalitatezko arreta medikora sartzeko bidea unibertsalak izatea, inor baztertu gabe. Konpromisoa hartzen dugu egun arte jaioberrien, haurren eta amen heriotza-tasan lortutako aurrerakuntzak bizkortzeko eta, horretarako, prebenitu daitezkeen heriotza-guztiei amaiera emateko hemendik 2030era. Konpromisoa hartzen dugu, halaber, sexu- eta ugalketa-osasunaren zerbitzuen sarbide unibertsala bermatzeko, familia-plangintzarenak, informazioarenak eta hezkuntzarenak barne. Era berean, malariaren, GIB/HIESaren, tuberkulosiaren, hepatitisaren, ebolaren eta transmiti daitezkeen beste gaixotasun batzuen eta izurriteen aurkako borrokan bilakaeren erritmoa bizkortuko dugu, eta gero eta handiago den antibiotikoen erresistentziari eta garapen-bidean dauden herrialdeengan eragiten duten eta arretarik jasotzen ez duten gaixotasunen arazoari ekingo zaie. Konpromisoa dugu transmiti ezin daitezkeen gaixotasunen prebentzioarekin eta tratamenduarekin, jokabide, eboluzio eta neurologia aldetiko nahasmenduak barne, oztopo handia baitira garapen jasangarriak.

27. Saiatuko gara gure herrialde guztietan oinarri ekonomiko sendoak ezartzen. Eutsitako hazkunde ekonomikoa, inklusiboa eta jasangarria ere badena, funtsezkoa da oparotasuna lortzeko, eta hori posible izango da, baldin eta aberastasuna partekatzen bada eta diru-sarreraren desberdintasunari aurre egiten bazaio. Ekonomia dinamikoak, jasangarriak, berritzaileak eta pertsonetan zentratzen direnak eraikitze lan egingo dugu

28. Gure gizarteek ondasunak eta zerbitzuak sortzen eta kontsumitzen dituzten moduan funtsezko aldagetak egiteko konpromisoa hartzen dugu. Gobernuak, nazioarteko erakundeek, enpresa-sektoreak eta estatukoak ez diren beste eragile eta partikular batzuek lagundu behar dute kontsumoko eta ekoizpeneko modalitate eutsiezinak aldatzen, baita laguntza finantzario eta teknikoen iturri guztiak mobilizatuz ere, garapen-bidean dauden herrialdeen gaitasun zientifikoa, teknologikoa eta berrikuntzako sendotzeko, kontsumo- eta ekoizpen-modalitate jasangarriagoetara aurrera egiteko. Hori dela eta, Kontsumo eta Ekoizpen Modalitate Jasangarrirei buruzko Programen Hamar Urterako Esparrua aplikatzea bultzatzen dugu. Herrialde guztiek, garatutakoetatik hasita, hartu behar dituzte neurriak, garapen-bidean dauden herrialdeen garapena eta gaitasunak kontuan hartuta.

29. Badakigu migratzaileek hazkunde inklusiboan eta hazkunde jasangarriean egiten duten ekarpen positiboa. Badakigu, halaber, nazioarteko migrazioa dimentsio ugari errealitatea dela, jatorrizko, iragate eta helmugako herrialdeen garapenerako egokitasun handikoa, erantzun koherenteak eta integralak behar dituena. Nazioarteko planoan ari gara lankidetzan, migrazioen segurtasuna, ordena eta erregularatasuna bermatzeko, giza eskubideak erabat errespetatuz eta migratzaileei, migrazio-estatusa edozein dela ere, eta errefuxiatu eta desplazatuei tratu humanitarioa emanez. Lankidetzaren horrek, halaber, errefuxiatuak hartzen dituzten komunitateen erresilientzia indartu beharko du, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan. Azpimarratu nahi dugu migratzaileek eskubidea dutela beren nazionalitate-herrialdera itzultzeko, eta gogorarazten dugu estatuek bermatu behar dutela behar bezala jasotzen direla beren herrialdera bueltatzen diren nazionalak.

30. Zinez eskatzen zaie estatuei, nazioarteko zuzenbidearekin eta Nazio Batuen Gutunarekin bateragarriak ez diren ekonomia-, finantza- edo merkataritza-neurriak aldebakarrean ez aldarrikatzeko eta ez aplikatzeko, eta gizarte- eta ekonomia-garapenaren erabateko lorpena saihesteko, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan.

31. Badakigu Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa nazioarteko gobernu arteko foro nagusia dela klima-aldaketari eman beharreko mundu-mailako erantzuna negoziatzeko. Erabaki dugu klima-aldaketak eta ingurumenaren suntsitzeak egiten duten mehatxuak erabakitaz gero egongo diogula aurre. Klima-aldaketa globala denez, nazioarteko lankidetzaren handiena behar da, negutegi-efektuko gasen munduko emisioen murrizketa bizkortzeko eta klima-aldaketaren kontrako efektuetara

egokitzeko. Hori dela eta, larritasun handiz ikusten dugu nolako desfase handia dagoen munduan 2020rako negutegi-efektuko gasen urteko emisioak arintzeko aldeek egindako promesen efektu agregatuaren eta emisio agregatuek jarraitu beharko luketen ibilbidearen artean, batez besteko temperatura globalaren gorakadak 2 gradu zentigradu edo industria aurreko mailetatik 1,5 gradu zentigradu ez gainditzeko aukera onak egoteko.

32. Parisen egingo den Aldeen Konferentziaren 21. bilera-aldiari begira, azpimarratu nahi dugu estatu guztiek konpromisoa hartzen dutela ahalegina egiteko klimari buruzko erabaki handinahia eta unibertsala lortzeko. Berretsi egiten dugu Konbentzioaren esparruan legezko indarrez adostutako eta alde guztiei aplikagarri zaien eta onesten den protokoloan edo tresna juridikoan orekaz aztertu beharko direla zenbait gai, besteak beste, arintzea, egokitzapena, finantziarioa, teknologien garapena eta transferentzia, gaitasuna sortzea eta neurrien eta emandako laguntzaren gardentasuna.

33. Badakigu gizarte- eta ekonomia-garapena gure planetako natura-baliabideen kudeaketa jasangarriaren araberakoak direla. Hori dela eta, erabaki dugu ozeanoak eta itsasoak, ur gezaren eta basoen baliabideak, mendiak eta zona idorrek jasangarritasunez babestu eta erabiliko ditugula eta dibertsitate biologikoa, ekosistemak eta basoko flora eta fauna babestuko ditugula. Erabaki dugu, halaber, turismo jasangarria sustatuko dugula, ur eskasiari eta kutsadurari aurre egingo diogula, desertifikazioaren, harea-ekaitzen, lurzoruaurren narriaduraren eta lehortearen gaineko lankidetzak sendotuko dugula eta erresilientzia eta hondamendien arriskuen murrizketa sustatuko ditugula. Hori horrela, gogotsu gaude Mexikon egingo den Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenari buruzko Aldeen Konferentziaren 13. bilerarako.

34. Badakigu hiri-inguruneen kudeaketa eta garapen jasangarriak funtsezkoak direla gure herrien bizi-kalitaterako. Tokiko komunitate eta aginteekin lan egingo dugu, gure hiriak eta giza kokaguneak berritzeko eta planifikatzeko, kohesio komunitarioa eta pertsonen segurtasuna sustatzeko eta berrikuntza eta enplegua bultzatzeko. Murriztu egingo ditugu hiri-jardueren eta osasunerako eta ingurumenerako arriskutsuak diren substantzia kimikoen efektu negatiboak, eta horretarako, gainera, ekologikoki zentzuzkoa den produktu kimikoen kudeaketa egingo dugu eta arriskurik gabe erabiliko ditugu, hondakinak murriztu eta birziklatuko ditugu eta uraren eta energiaren erabilera efizienteagoa egingo dugu, eta munduko klimasisteman hirien eragina gutxitzeko lan egingo dugu. Era berean, kontuan izango ditugu joera eta aurreikuspen demografikoak gure estrategietan eta landa- eta hiri-garapenerako politika nazionaletan. Hori horrela, gogotsu gaude hurrengo Etxebizitzari eta Hiri Garapen Jasangarriari buruzko Nazio Batuen Konferentziarako; Quiton izango da.

35. Garapen jasangarria ezin da errealitate bihurtu, bakerik eta segurtasunik gabe, eta bakea eta segurtasuna arriskuan daude garapen jasangarriarik gabe. Agenda berriak aitortzen du gizarte baketsuak, bidezkoak eta inklusiboak eraikitzeko beharra dagoela, justiziara jotzeko bidea ematen dutenak eta giza eskubideen errespetuan oinarritzen direnak (garapenerako eskubidea barne), zuzenbide eraginkorreko eta gobernamentu oneko estatuan maila guztietan, eta kontuak ematen dituzten erakunde garden eta eraginkorretan. Agendan indarkeria, segurtasunik eza eta justiziarik eza eragiten duten alderdiei heltzen zaie, besteak beste, desberdintasunei, ustelkeriari, gobernamentu txarrari eta finantza-baliabideen eta armen legez kontrako joerei. Ahalegin handiagoa egin behar dugu gatazkak ebazteko edo

prebenitzeko eta gatazka batetik irteten diren herrialdeei gure laguntza emateko, baita emakumeek estatuaren bakea eta eraikuntza bateratzen beren zeregina bete dezaten bermatuz ere. Ekintza eta neurri eraginkor berriei ekiteko eskatzen dugu, nazioarteko zuzenbidearekin bat etorritz, okupazio kolonialaren eta atzerritarraren menpe bizi diren eta beren ekonomia- eta gizarte-garapenean eta ingurumenean eragin negatiboa izaten jarraitzen duten herrien erabaki aserako eskubidea erabat baliatzea eragozten duten oztopoak ezabatzeke.

36. Konpromisoa hartzen dugu kultura, tolerantzia, elkarrenganako errespetua eta munduko herritarren balio etniko eta partekatutako erantzukizunaren arteko ulermena sustatzeko. Ezagutzen dugu munduko natura- eta kultura-dibertsitatea, eta kultura eta zibilizazio guztiek garapen jasangarriari lagun diezaioketela eta hori ahalbidetzeko funtsezko zeregina dutela.

37. Kirola garapen jasangarriari bide emateko beste eragile bat da. Badakigu kirolak gero eta eragin handiagoa duela garapena eta bakea errealtate egiteko, tolerantzia eta errespetua sustatuz, eta emakumeen eta gazteen, pertsona eta komunitateen ahalduntzea ere babesten duela, bai eta osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-inklusioren arloko helburuak ere.

38. Berresten dugu, Nazio Batuen Gutunarekin bat etorritz, beharrezkoa dela lurralde-osotasuna eta estatuaren independentzia politikoa errespetatzea.

#### **Ezarpen-neurriak**

39. Agenda berri zabal eta handinahi honen ezarpenak mundu mailako Aliantza indartua behar du, eta horrekin konpromiso osoa dugu. Aliantzak munduko elkartasun-espírituarekin lan egingo du, bereziki pobreenekin eta ahultasun-egoeretan dauden pertsonekin. Gainera, mundu mailako parte-hartze handiari emango dio bide, helburu eta erronka guztiak betetzen direla bermatzeko; horretarako, gobernuak, sektore pribatua, sozietate zibila, Nazio Batuen sistema eta beste instantzia batzuk batuko ditu, eta eskuragarri dauden baliabide guztiak mobilizatuko ditu.

40. 17. helburuan eta Garapen Jasangarrirako gainerako Helburuetan dauden ezarpen-baliabideei buruzko erronkak ezinbestekoak dira gure Agenda praktikan jartzeko, eta gainerako helburu eta erronken garrantzi bera dute. Agenda, Garapen Jasangarrirako Helburuak barne, Garapen Jasangarrirako Mundu Mailako Aliantza indartu baten esparruan bete daiteke, 2015eko uztailaren 13tik 16ra Addis Abeban egin zen Garapenerako Finantziarioari buruzko Nazioarteko hirugarren Biltzarraren amaierako dokumentuan adierazitako politika eta neurri zehatzen laguntzarekin. Oniritziz hartzen dugu Addis Abebako Ekintza Agendaren Biltzar Nagusiaren onespina. Biltzar hori Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren zati integrala da. Badakigu Addis Abebako Ekintza Agendaren erabateko aplikazioa funtsezkoa dela Garapen Jasangarrirako Helburuak eta erronkak lortzeko.

41. Badakigu herrialde bakoitza bere ekonomia- eta gizarte-garapenean arduradun nagusia dela. Agenda berrian, helburuak eta erronkak ezartzeko beharrezko baliabideak adierazten direla. Badakigu, halaber, baliabide horiek finantza-baliabideen mobilizazioa jasoko dutela, bai eta garapen-bidean dauden herrialdeei ekologikoki arrazoizkoak diren teknologien transferentzia egitea eta ahalmena sor dezatela ahalbidetzea ere, baldintza onuragarrietan eta elkarren artean adostutako baldintza emakidadun eta leentasunekoetan. Finantziario publikoa, nazio- eta nazioarte-mailan,

ezinbestekoa izango da funtsezko zerbitzuak eta ondasun publikoak emateko eta beste finantziario-iturri batzuk katalizatzeko. Badakigu zer zeregin duten sektore pribatua osatzen dutenek Agenda berriaren ezarpenean, mikroenpresek eta kooperatibek zein multinazionalak, eta zein den sozietate zibileko erakundeak eta erakunde filantropikoen funtzioa.

42. Estrategiak eta ekintza-programak gauzatzea bultzatzen dugu, besteak beste, Istanbulen Adierazpena eta Ekintza Plana, Garapen-bidean dauden Uharte Estatu Txikien Ekintza Bizkortuko Modalitateak eta 2014-2024 Hamarkadarako Garapen Bidean dauden Litoralik gabeko Herrialdeen aldeko Vienako Ekintza Programa, eta berresten dugu oso garrantzitsua dela Batasun Afrikarraren 2063 Agenda eta Afrikaren Garapenerako Aliantza Berriaren programa bultzatzea, horiek guztiek, gainera, Agenda berriaren zati integral baitira. Badakigu gatazka-egoeretan edo gatazka osteko egoeretan dauden herrialdeetan bake jasagarria eta garapen jasagarria lortzea eragozten duten oztopo handiak daudela.

43. Nabarmendu nahi dugu nazioarteko finantziario publikoak herrialdeek baliabide publikoak barneko mailan mobilizatzeko egiten duten ahaleginaren funtsezko osagarri dela, batez ere herrialde pobreenetan eta barne-baliabide mugatuak dituzten herrialde ahulenetan. Nazioarteko finantziario publikoaren zeregin garrantzitsua da, garapenerako laguntza ofiziala barne, beste iturri batzuetako –publikoak zein pribatuak– baliabide gehigarrien mobilizazioa katalizatzeko. Garapenerako laguntza ofizialaren hornitzaileek dauzkaten konpromisoak berresten dituzte, herrialde garatu askok beren diru-sarrera nazional gordinaren %0,7 garapen-bidean dauden herrialdeen garapenerako laguntza ofizialera eta diru-sarrera nazional gordinaren %0,15 eta 0,2 bitartean aurrerapen txikiak duten herrialdeen garapenerako laguntza ofizialera bideratzeko hartu duten konpromisoa barne.

44. Badakigu oso garrantzitsua dela nazioarteko finantza-erakundeek, beren aginteei jarraiki, herrialde bakoitzaren araudi-esparrua babestea, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeetan. Konpromisoa hartzen dugu berriro garapen-bidean dauden herrialdeen esku-hartzea eta parte-hartzea zabaltzeko eta indartzeko –Afrikako herrialdeak, aurrerapen txikiak herrialdeak, garapen-bidean dauden kostalderik gabeko herrialdeak eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiak eta diru-sarrera ertainak dituzten herrialdeak barne– ekonomia-arloko erabakiak eta neurriak hartzeko nazioarteko prozesuetan eta munduko ekonomia-gobernamenduan.

45. Badakigu, era berean, parlamentu nazionalak funtsezko zeregina beteko dutela gure konpromisoak eraginkortasunez betetzeko; horretarako, legeria aldarrikatu, aurrekontuak onetsi eta kontuak ematea bermatuko dute. Gobernuak eta erakunde publikoak ere hertsiki jardungo dute lankidetzan eskualdeko eta tokiko agintariekin, eskualdez azpiko erakundeekin, nazioarteko erakundeekin, komunitate akademikoarekin, erakunde filantropikoekin, boluntarioen taldearekin eta beste instantzia batzuekin, konpromisoak ezartzeko.

46. Nazio Batuen sistemak Garapen Jasangarrirako Helburuak eta garapen jasagarria bera lortzen laguntzeko izango dituen zeregin eta konparaziozko abantailak nabarmentzen ditugu, baldin eta baliabide nahikoa badu eta lan egokia, koherentea, eraginkorra eta efizientea egiten badu. Herrialdeetan titulartasuna eta lidergo nazionalak indartzeko garrantzia nabarmendu nahi ditugu, eta, aldi berean, Ekonomia eta Gizarte Batzordearen egungo elkarrizketa-prozesua bultzatzen dugu, Nazio Batuek Agenda honen testuinguruan garapenerako sistemaren posizionamenduari buruz epe luzera.

### **Segimendua eta azterketa**

47. Gure gobernuak, nazio-, eskualde- eta mundu-mailan helburuen eta erronken betetze-mailan datozen 15 urteotan lortutako bilakaeren jarraipena eta azterketa egiteko arduradun nagusiak dira. Gure herritarrei kontu ematea sustatzeko, segimendurako eta azterketarako prozesu sistematikoa egingo dugu, hainbat mailatan, Agenda honetan eta Addis Abebako Ekintza Agendan adierazi bezala. Goi-mailako foro politikoak, Batzar Nagusien eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren babespean, zeregin nagusia beteko du jarraipen- eta azterketa-prozesu horren berrikusketan, mundu-mailan.

48. Adierazleak egiten ari dira lan horri laguntzeko. Kalitate-datu banakatuak, eskuragarriak, egokiak eta fidagarriak beharko dira, bilakaerak neurtzen laguntzeko eta inor atzean geratzen ez dela ziurtatzeko; izan ere, datu horiek ezinbestekoak dira erabakiak hartzeko. Ahal denean, dauden mekanismoek emandako datuak eta informazioa erabili beharko dira. Erabaki dugu garapen-bidean dauden herrialdeen gaitasun estatistikoa hobetzeko ahalegina sendotzea, batez ere Afrikako herrialde, aurrerapen txikieneko herrialde, garapen-bidean dauden kostalderik gabeko herrialde eta diru-sarrera ertainak dituzten herrialdeena. Konpromisoa hartzen dugu zabalagoak diren eta barne-produktu gordina osatzen duten aurrerapenak neurtzeko metodoak formulatzeko.

### **Gure mundua aldatzeko ekintzarako beharra**

49. Duela 70 urte, mundu-mailako liderren aurreko belaunaldi bat batu egin zen, Nazio Batuak sortzeko. Gerraren hautsen eta banaketaren ondorioz, eratu ziren Erakunde hau eta oinarri dituen bakearen balioak, elkarriketa eta nazioarteko lankidetzak. Nazio Batuen Gutuna balio horien adierazpen nagusia da.

50. Gaur hartu dugun erabakiak ere garrantzi historikoa du. Erabaki dugu guztiontzako etorkizun hobea eraikitzea, bizitza duina eta osoa izateko eta giza potentzial guztia egiteko aukera izatetik gabetu dituzten milioika pertsonak barne. Beharbada, pobrezia amaiara jartzen dion lehen belaunaldia izango gara; bestalde, oraindik planeta salbatzeko aukera duen azkena izango gara, beharbada. Gure helburuak betetzen baditugu, mundua hobea izango da 2030ean.

51. Gaur iragartzen duguna –mundu-mailako ekintzarako Agenda, hurrengo 15 urteotan– pertsonentzako eta planetarentzako gutun bat da, XXI. menderako. Bi sexuetak ume eta gazteak funtsezko eragile dira aldaketan eta helburu berrietan plataforma bat aurkituko dute, aktibismoaren gaitasun amaigabea bideratzeko mundu hobea lortzeko.

52. Nazio Batuen Gutunaren hasiera “Gu, Nazio Batuen herrialde garenok” esaldi ezaguna da. Gaur egun, “gu, Nazio Batuen herrialde garenok” gara 2030erako bideari ekiten diogunok. Gure bidaian, gobernuak izango ditugu bidelagun, bai eta parlamentuak, Nazio Batuen sistema eta nazioarteko beste erakunde batzuk ere, tokiko agintariak, herri indigenak, sozietate zibila, enpresak eta sektore pribatua, komunitate zientifikoa eta akademikoa eta herritar guztiak ere. Agenda honekin, dagoeneko, berezkotzat hartuko duten milioika pertsona konprometitu dira. Herriaren agenda da, herriak herriarentzat egina, eta, hori dela eta, arrakasta bermatuta dago.

53. Gizateriaren eta gure planetaren etorkizuna gure esku dago, bai eta belaunaldi gazteenen esku ere, hark emango baitie lekukoa hurrengo



belaunaldiei. Bidea prestatu dugu garapen jasangarrirako, eta guztioi dagokigu bermatzea bidaiaren helmuga egokia izatea eta lorpenak atzeraezinak izatea.

## **Garapen Jasangarrirako Helburuak eta erronkak**

54. Gobernu arteko negoziazioen prozesu inklusibo baten ondoren eta oinarri gisa Garapen Jasangarrirako Helburuei buruzko Lantalde Irekiaren<sup>1</sup> proposamena hartuta, helburu horiek testuinguruan jartzen direla epigrafeetako batean, jarraian adierazitako helburu eta erronkak adostu ditugu.

55. Garapen Jasangarrirako Helburuak eta horien erronkak integratuak eta bereizezinak dira, mundu-mailakoak eta aplikazio unibertsalekoak, eta herrialde bakoitzeko errealitateak, gaitasunak eta garapen-mailak hartzen dituzte kontuan eta politika eta lehentasun nazionalak errespetatzen dituzte. Nahiz eta erronkek asmoak mundu-mailan adierazten dituzten, gobernu bakoitzak bere erronka nazionalak ezarriko ditu, eta xede orokor handinahiaren arabera gidatuko da, baina kontuan hartuta herrialdearen gertakariak. Gobernu bakoitzak erabakiko du, halaber, asmo horiek eta munduko erronkak plangintza-prozesu, politika eta estrategia nazionalak sartzeko modua. Garrantzitsua da onartzea garapen jasangarriaren eta esfera ekonomiko, sozial eta ingurumenekoetan gauzatzen ari diren prozesuen artean dagoen lotura.

56. Helburu eta erronka horiek adostean, badakigu herrialde bakoitzak erronka berezi batzuei egin behar diela aurre, garapen jasangarria lortzeko, eta nabarmendu nahi ditugu herrialde ahulenek oztopo dituzten arazo bereziak, bereziki Afrikako herrialde, aurrerapen txikieneko herrialde, garapen-bidean dauden kostalderik gabeko herrialde, garapen-bidean dauden uharte-estatu txikieneko, bai eta diru-sarrera ertainak dituzten herrialdeek dituzten zailtasun zehatzenak ere. Halaber, arreta berezia behar dute gatazka-egoeran dauden herrialdeek.

57. Badakigu erronka batzuetarako ez dagoela erreferentziatzko daturik, eta laguntza handiagoa eskatzen dugu estatu kideetan datuen biltzea eta gaitasunaren sorrera indartzeko, nazio- eta mundu-mailako oinarriak ezartzeko, oraindik ez badaude. Konpromisoa hartzen dugu akats horiek zuzentzeko datuak biltzean, egindako bilakaeren neurketa hobeto jakinarazteko, zehazki, zenbakizko helburu argiak jasotzen ez dituzten erronkei dagokienez.

---

<sup>1</sup> Garapen Jasangarrirako Helburuei buruzko Biltzar Orokorraren Lantalde Irekiaren txostenean dago jasota ([A/68/970](#) eta Corr.1; ikus, halaber, [A/68/970/Add.1](#) eta [2](#)).

58. Estatuak bultzatzen ditugu beste foro batzuetan egiten duten ahaleginarekin jarraitzera, gure Agenda gauzatzeko egon daitezkeen erronkak ekar ditzaketen funtsezko gakoak ebazten saiatzeko, eta errespetatu egiten ditugu prozesu horien agindu independenteak. Gure asmoa da Agendak eta haren ezarpenak prozesu horiek eta bertan hartzen diren erabakiak ezartzea eta ez kaltetzea.

59. Badakigu herrialde bakoitzak ikuspegi, etorkizuneko helburu, eredu eta tresna desberdinak dituela garapen jasagarria lortzeko, gertakari eta lehenetasun nazionalen arabera, eta berresten dugu Lurra planeta eta bere ekosistemak gure etxea direla eta "Ama Lurra" adierazpen arrunta dela herrialde eta eskualde askotan.

### **Garapen Jasangarrirako Helburuak**

1. helburua. Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.
2. helburua. Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.
3. helburua. Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.
4. helburua. Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.
5. helburua. Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.
6. helburua. Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.
7. helburua. Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.
8. helburua. Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.
9. helburua. Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.
10. helburua. Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea.
11. helburua. Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.
12. helburua. Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.
13. helburua. Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko\*.
14. helburua. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarriean erabiltzea garapen jasangarriari begira.
15. helburua. Lehorreko bizitza babestea, lehengoratztea eta modu jasangarriean erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarriean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.
16. helburua. Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.
17. helburua. Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.

---

\* Aintzat hartuta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena klima aldatetari mundu mailan erantzuteko gobernuen arteko eta nazioarteko foroa nagusia dela.

## **1. helburua. Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.**

1.1 Hemendik 2030era, pertsona ororentzat eta mundu osoan muturreko pobreziarekin amaitzea (gaur egun ulertzen da muturreko pobrezian daudenak egunean Ameriketako Estatu Batuetako 1,25 dolar baino gutxiagorekin bizi direnak direla).

1.2 Hemendik 2030era, definizio nazionalen arabera pobrezian, bere dimentsio guztietan, bizi diren gizon, emakume eta adin guztietako haurren proportzioa erdira behintzat jaitea.

1.3 Nazio-mailan guztiontzako babes sozialeko sistema eta neurri egokiak ezartzea, gutxieneko mailak barne, eta, hemendik 2030era, pertsona pobre eta ahulen babes zabala lortzea.

1.4 Hemendik 2030era, gizon eta emakume guztiak, bereziki pobreenek eta ahulenek, baliabide ekonomikoak izateko eta oinarritzko zerbitzuak, lurraren eta beste ondasun batzuen jabetza eta kontrola izateko, herentziarako, natura-baliabideetarako, teknologia berri egokietarako eta finantza-zerbitzuetarako, mikrofinantziarioa barne, eskubidea dutela bermatzea.

1.5 Hemendik 2030era arte, pobreen eta ahultasun-egoeretan dauden pertsonen erresilientzia sustatzea eta klimarekin eta beste asaldura eta hondamen ekonomiko, sozial eta ingurumeneko batzuekin lotutako muturreko fenomenoaren eraginpean egotea eta ondoriozko ahultasuna murriztea.

1.a. Hainbat iturritatik datozen baliabideen mobilizazio esanguratsua bermatzea, baita garapenerako lankidetzak hobetuz ere, aurreikusteko moduko nahikoa baliabide emateko garapen-bidean dauden herrialdeei, batez ere, aurrerapen txikieneko, pobrezia dimentsio guztietan amaiera emateko programa eta politikak ezartzeko.

1.b. Nazio-, eskualde- eta nazioarte-mailan araudi-esparru sendoak sortzea, pobreen aldeko garapen-estrategien oinarriaren gainean, genero-kontuak aintzat hartzen dituztenak, pobreziarekin amaitzeko neurrietan inbertsio bizkortua bultzatzeko.

## **2. helburua. Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.**

2.1 Hemendik 2030era, gosearekin amaitzea eta pertsona guztiak, bereziki pobreek eta ahultasun-egoeran dauden pertsonak, 1 urtetik beherako umeak barne, urte osoan zehar elikadura osasuntsua, nutritiboa eta nahikoa eskuratzeko aukera dutela ziurtatzea.

2.2 Hemendik 2030era, malnutrizioaren modu guztiekin amaitzea, eta, beranduenez 2025ean, nazioartean hazkunderaren atzerapenaren eta 5 urtetik beherako umeen ahultasunaren gainean hitzartutako erronkak lortzea, eta nerabeen, haurdun dauden eta bular-emalle diren emakumeen eta adineko pertsonen nutrizio-beharrei erantzutea.

2.3 Hemendik 2030era, nekazaritza-ustiapena eta eskala txikian elikaduren ekoizle diren diru-sarrerak bikoiztea (bereziki, emakume, herri indigena, familiako nekazari, abeltzain eta arrantzaleenak), besteak beste, lurretara sarbide segurua eta bidezkoa edukiz, bai eta beste ekoizpen-baliabide eta -

input batzuetara eta ezagutza, finantza-zerbitzu, merkatu eta balioa eransteko aukeretara ere, eta nekazaritzakoak ez diren enpleguak lortzea.

2.4 Hemendik 2030era, elikagaien ekoizpen-sistemen jasangarritasuna ziurtatzea eta produktibitatea eta ekoizpena areagotzen duten, ekosistemei eusten laguntzen duten, klima-aldaketara, muturreko fenomeno meteorologikoetara, lehorre, uholde eta beste hondamendi batzuetara egokitzeko gaitasuna indartzen duten eta luraren eta lurzorua kalitatea pixkanaka hobetzen duten nekazaritza-praktika indartsuak aplikatzea

2.5 Hemendik 2020ra, hazien, landutako landareen eta granjako eta etxeko animalien eta dagozkien baso-espezieen aniztasun genetikoari eustea, besteak beste, kudeaketa egokiaren eta hazi- eta landare-bankuen dibertsifikazioaren bidez, nazio-, eskualde- eta nazioarte-mailan, eta baliabide genetikoak erabiltzearen eta ezagutza tradizional konexuen eta banaketa bidezko eta zuzenaren bidez, nazioarte-mailan hitzartutakoaren arabera

2.a Landako azpiegiturako, ikerketako eta nekazaritza-eremuko zerbitzuetako, garapen teknologikoko eta ganaduaren eta landareen gene-bankuetako inbertsioa areagotzea, baita nazioarteko lankidetzaren handiagotzea bidez ere, nekazaritza- eta abelazkuntza-ekoizpenaren gaitasuna hobetzeko garapen-bidean dauden herrialdeetan, batez ere aurrerapen txikien herrialdeetan

2.b Munduko nekazaritzako eta abeltzaintzako merkatuetan, merkataritza-murrizketak eta -desitxuratzeko zuzentzea eta prebenitzea, nekazaritza-ustiapenei diruz laguntzeko modu guztien eta efektu baliokideak dituzten esportazio-neurri guztien ezabatze paraleloaren bidez, Garapenerako Dohako Errondaren aginduekin bat.

2.c Elikadurako oinarriko produktuen eta eratorrien merkatuak ondo dabilzala ziurtatzeko neurriak hartzea, eta merkatuei buruzko informaziorako sarbide egokia bideratzea, baita elikaduren erreserben gainean ere, elikagaien prezioen muturreko lurrunkortasuna mugatzen laguntzeko.

### **3. helburua. Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.**

3.1 Hemendik 2030era, munduko amen heriotza-tasa murriztea 70etik behera, bizirik jaiotako 100.000 bakoitzeko.

3.2 Hemendik 2030era, jaioberrien eta 5 urtetik beherako umeen heriotza saihegarrii amaiera ematea; horrela, herrialde guztiek jaioberrien heriotza-tasa gutxienez bizirik jaiotako 1.000 bakoitzeko 12ra jaisteko eta 5 urtetik beherako haurren heriotza-tasa gutxienez 1.000 bakoitzeko 25era jaisteko ahalegina egin dezaten lortzea.

3.3 Hemendik 2030era, HIESaren, tuberkulosiaren eta malariaren izurriekin eta aintzat hartu ez diren beste gaixotasun tropikal batzuekin amaitzea eta hepatitisari, uraren bidez transmititutako gaixotasunei eta transmiti daitezkeen beste gaixotasun batzuei aurre egitea.

3.4 Hemendik 2030era, heren batera murriztea transmititu ezin diren gaixotasunen ondoriozko heriotza-tasa goiztiarra, prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea.

3.5 Mendekotasuna sortzen duten substantzien prebentzioa eta tratamendua indartzea, estupezahentzen erabilera desegokia eta alkoholaren kontsumo kaltegarria barne.

3.6 Hemendik 2020era, erdira murriztea munduan trafiko-istripuen ondorioz eragindako heriotza- eta lesio-kopurua.

3.7 Hemendik 2030era, sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea, familia-plangintzakoak, informaziokoak eta hezkuntzakoak barne, eta ugalketa-osasuna sartzeko estrategia eta programa nazionaletan.

3.8 Osasun-estaldura unibertsala lortzea, finantza-arriskuen aurkako babesa barne, kalitatezko funtsezko osasun-zerbitzuetarako sarbidea barne, eta kaltegarriak ez diren eta guztiontzako eraginkorrak, eskuragarriak eta kalitatezkoak diren medikamentu eta txertoak eskuratzeko aukera barne.

3.9 Hemendik 2030era, nabarmen jaitea produktu kimiko arriskutsuen eta airearen, uraren eta luraren poluzioaren eta kutsaduraren ondorioz eragindako heriotza eta gaixotasunak.

3.a Osasunaren Mundu Erakundearen Tabakoaren Kontrolerako Esparru Hitzarmenaren aplikazioa indartzea herrialde guztietan, dagokionaren arabera.

3.b Batez ere garapen-bidean dauden herrialdeei eragiten dieten gaixotasun transmitigarrien eta ez-transmitigarrien aurkako txertoak eta medikamentuak ikertzeko eta garatzeko jarduerak bultzatzea eta funtsezko medikamentu eta txerto eskuragarrietara jotzeko bideak erraztea. Hori guztia, Merkataritzarekin eta Osasun Publikoarekin lotutako Jabetza Intelektualeko Eskubideen alderdiei buruzko Hitzarmenari buruzko Adierazpenarekin bat; bertan baieztatzen da garapen-bidean dauden herrialdeek Merkataritzarekin eta Osasun Publikoarekin lotutako Jabetza Intelektualeko Eskubideen alderdiei buruzko Hitzarmenean osasun publikoa babesteko eta, bereziki, guztiontzako medikamentuak eskuratzeko malgutasunari buruz adierazten diren xedapenak ahalik eta gehien erabiltzeko eskubidea dutela.

3.c Nabarmen areagotzea osasunaren finantziarioa eta osasun-langileen kontratazioa, hobekuntza eta gaikuntza, eta horiei eustea garapen-bidean dauden herrialdeetan, bereziki, aurrerapen txikieneko herrialdeetan eta garapen-bidean dauden uharte-estatuetan.

3.d Herrialde guztiek eta, batez ere, garapen-bidean dauden herrialdeek alerta goiztiarrerako, arriskuak murrizteko eta nazio- eta mundu-mailako osasunerako arriskuak kudeatzeko duten gaitasuna indartzea.

#### **4. helburua. Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.**

4.1 Hemendik 2030era, haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntza amaitzen dutela ziurtatzea; doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa izan behar du, eta ikaskuntza-emaizta egokiak eta eraginkorrak ekarri behar ditu.

4.2 Hemendik 2030era, haur guztiek lehen hartzaroan eta aurre eskolako hezkuntzan arretarako eta garapenerako kalitatezko zerbitzuak eskura ditzaketela ziurtatzea, lehen hezkuntzarako prest egon daitezen.



5.4 Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta baloratzea zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera.

5.5 Emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lidergoko aukera-berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan.

5.6 Sexu- eta ugalketa-osasunerako sarbide unibertsala ziurtatzea, bai eta ugalketa-eskubideak ere, Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren Ekintza Programarekin, Pekineko Ekintza Plataformarekin eta aztertzeko konferentzien azken dokumentuekin bat adostutakoaren arabera.

5.a Emakumeei baliabide ekonomikoetarako eskubide-berdintasuna eta lurraren jabetza eta kontrolerako eta ondasunak, finantza-zerbitzuak, herentzia eta natura-baliabideak eduki ahal izateko eskubide-berdintasuna ematen dieten erreformei ekitea, lege nazionalekin bat etorritik.

5.b Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologiararena, emakumeen ahalduntzea sustatzeko.

5.c Politika zuzenak eta genero-berdintasuna sustatzeko lege aplikagarriak onestea eta indartzea, emakume eta neskatu guztien genero-berdintasuna eta ahalduntzea sustatzeko, maila guztietan.

## **6. helburua. Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.**

6.1 Hemendik 2030era, ur edangarria lortzeko aukera unibertsala eta bidezkoa izan dadila lortzea, denontzako prezio egokian.

6.2 Hemendik 2030era, saneamendu- eta higiene-zerbitzu egoki eta bidezkoetarako sarbidea lortzea denontzat, eta amaiera ematea aire zabalean sabelusteari. Arreta berezia eskainiko zaie emakumeen eta neskatuen beharrei, eta ahultasun-egoeran dauden pertsonenei.

6.3 Hemendik 2030era, uraren kalitatea hobetzea, alegia: kutsadura murriztea; hondakin, produktu kimiko eta material arriskutsurik ez isurtzea; tratatu gabeko hondakin-uren portzentajea erdira murriztea; eta arriskurik gabeko birziklapena eta berrerabilera nabarmen areagotzea mundu osoan.

6.4 Hemendik 2030era, nabarmen areagotzea baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra sektore guztietan, eta bermatzea ur gezaren erazketaren eta horniketaren jasangarritasuna, ur-gabeziari aurre egiteko eta urik ez duten pertsonen kopurua nabarmen murrizteko.

6.5 Hemendik 2030era, baliabide hidrikoen kudeaketa integratua ezartzea maila guztietan, baita mugaz gaindiko lankidetzaren bidez ere, hala badagokio.

6.6 Hemendik 2020ra, babestea eta berrezartzea urarekin lotura duten ekosistemak, basoak, mendiak, hezeguneak, ibaiak, akuiferoak eta lakuak.

6.a Hemendik 2030era, nazioarteko lankidetzaren eta garapen-bidean dauden herrialdeei emandako laguntza areagotzea, uraren eta saneamenduaren arloko jardueraren eta programetan ahalmena sortzeko; esaterako, honako hauetan: ura jasotzea, gatzgabetzea, baliabide hidrikoak modu eraginkorrean



erabiltzea, hondakin-urak tratatzea, birziklatzea eta berrerabiltzeko teknologiak erabiltzea.

6.b Toki-komunitateek ur- eta saneamendu-kudeaketaren hobekuntzan duten parte-hartzea babestea eta sendotzea.

### **7. helburua. Energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoak bermatzea guztiontzat.**

7.1 Hemendik 2030era, energia-zerbitzu arrazoizko, fidagarri eta modernoetarako sarbide unibertsala bermatzea.

7.2 Hemendik 2030era, nabarmen areagotzea energia berriztagarrien proportzioa, energia-iturri guztien artean.

7.3 Hemendik 2030era, energia-eraginkortasunaren hobekuntzaren munduko tasa bikoiztea.

7.a Hemendik 2030era, nazioarteko lankidetzaren areagotzea, energia garbiari lotutako ikerketarako eta teknologiarako sarbidea ahalbidetzeko. Hemen sartuko dira iturri berriztagarriak, energia-eraginkortasuna eta erregai fosilen teknologia aurreratu eta ez horren kutsakorrak. Hemen sartzen da, halaber, energia-azpiegituretako eta teknologia garbietako inbertsioa sustatzea.

7.b Hemendik 2030era, energia-zerbitzu modernoak eta jasagarriak emateko azpiegitura areagotzea eta teknologia berritzea, garapen-bidean dauden herrialde guztietan; bereziki, aurrerapen txikieneko herrialdeetan, garapen-bidean dauden uharte-estatu txikietan eta garapen-bidean dauden kostalderik gabeko herrialdeetan. Betiere, bat etorritik beren laguntza-programekin.

### **8. helburua. Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusioa eta jasagarria, enplegu bete eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.**

8.1 Bere horretan eustea per capita hazkuntza ekonomikoari, ezaugarri nazionalen arabera, eta barne-produktu gordina urtean gutxienez % 7 haz dadila bermatzea aurrerapen txikieneko herrialdeetan.

8.2 Produktibitate ekonomikoaren maila handiagoak lortzea, dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren artean, besteak beste, balio erantsi handia duten eta eskulan asko erabiltzen duten sektoreei arreta eskainiz.

8.3 Garapenera bideratutako politikak sustatzea, honako alderdi hauei babesa emango dietenak: ekoizpen-jarduerak, lanpostu egokien sorrera, ekintzailatza, sormena eta berrikuntza; eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta hazkuntza sustatzea, baina finantza-zerbitzuak eskuratzearen bidez ere.

8.4 Hemendik 2030era, pixkanaka hobetzea munduko baliabideen ekoizpen eta kontsumo eraginkorra, eta hazkunde ekonomikoaren ingurumenaren degradaziotik bereizten saiatzea, Kontsumo eta Ekoizpen Modalitate Jasangarrirei buruzko Programaren Hamar Urterako Esparruarekin bat etorritik, garatutako herrialdeetatik hasita.

8.5 Hemendik 2030era, enplegu osoa eta produktiboa eta lan egokia lortzea emakume eta gizon guztiontzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortzea.

8.6 Hemendik 2020ra, nabarmen murriztea enplegurik ez duten eta ikasten edo gaitzen ari ez diren gazteen proportzioa.

8.7 Berehalako neurri eraginkorrak hartzea ezinbesteko lanarekin amaitzeko, amaiera ematea egungo esklabotasun-moduei eta pertsonen salerosketari, eta haurren lanaren forma okerrenak (errekrutatzea eta haur soldaduak barne) debekatu eta kenduko direla bermatzea; eta, hemendik 2025era, amaiera ematea haurren lanari, bere forma guztietan.

8.8 Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatzea langile guztientzat, migratzaileak barne, eta, bereziki, emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituztenentzat.

8.9 Hemendik 2030era, turismo jasagarria sustatzera bideratutako politikak egitea eta martxan jartzea, lanpostuak sor ditzan eta tokiko kultura eta produktuak susta ditzan.

8.10 Finantza-erakunde nazionalak pertsona guztientzako banku-, finantza- eta aseguru-zerbitzuetarako sarbidea sustatzeko eta zabaltzeko duten ahalmena areagotzea.

8.a Merkataritzari laguntzeko ekimenarentzako babesa areagotzea garapen-bidean dauden herrialdeetan, bereziki, aurrerapen txikieneko herrialdeetan, baita Aurrerapen Txikieneko Herrialdeetan Merkataritzaren Arloko Laguntza Teknikorako Esparru Integratu Hobetuaren bitartez ere.

8.b Hemendik 2020ra, gazteek enplegua lortzeko mundu-mailako estrategia bat garatzea eta martxan jartzea, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Enplegurako Munduko Ituna aplikatzea.

## **9. helburua. Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasagarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.**

9.1 Azpiegitura fidagarriak, jasagarriak, sendoak eta kalitatezkoak egitea, eskualde-mailako eta mugaz gaindiko azpiegiturak barne, garapen ekonomikoa eta giza garapena babesteko, arreta berezia eskainiz pertsona guztiek horiek modu arrazoizko eta bidezkoan erabiltzeko aukera izateari.

9.2 Industrializazio inklusiboa eta jasagarria sustatzea eta, hemendik 2030era, nabarmen areagotzea industriak enpleguari eta barne-produktu gordinari egiten dion ekarpena, bat etorritz egoera nazionalekin, eta ekarpen hori bikoiztea aurrerapen txikieneko herrialdeetan.

9.3 Industria txikiak eta beste enpresa batzuek finantza-zerbitzuak, arrazoizko kredituak barne, lortzeko dituzten aukerak areagotzea, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan, eta industria edo enpresa horiek balio-kateetan eta merkatuetan sar daitezela ahalbidetzea.

9.4 Hemendik 2030era, azpiegitura modernizatzea eta industriak eraldatzea, jasagarriak izan daitezen. Horretarako, eraginkortasun handiagoko baliabideak erabili behar dira eta teknologia- eta industria-prozesu garbiak eta ingurumenaren ikuspegitik arrazoizkoak erabiltzen direla bermatu behar da, eta herrialde guztiek dagozkien ahalmenen arabera neurriak har ditzatela lortu behar da.

9.5 Ikerketa zientifikoa areagotzea eta herrialde guztietako industria-sektoreen ahalmen teknologikoa hobetzea, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan. Horretarako, berrikuntza sustatu behar da eta nabarmen areagotu behar da, hemendik 2030era, ikerketan eta garapenean lan egiten

duzen pertsonen kopurua (milioi biztanletik), baita sektore publikoek eta pribatuek ikerketan eta garapenean egiten duten gastua ere.

9.a. Garapen-bidean dauden herrialdeetan azpiegitura jasangarriak eta sendoak egin daitezela ahalbidetzea, babes finantzario, teknologiko eta tekniko handiagoa emanez Afrikako herrialdeei, aurrerapen txikieneko herrialdeei, kostalderik gabeko garapen-bideko herrialdeei eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiei.

9.b. Teknologia, ikerketa eta berrikuntza nazionalen garapenari babesa ematea garapen-bidean dauden herrialdeetan, baita industria-dibertsifikazioa eta oinarritzko produktuei balioa ematea ahalbidetuko duen araudi-esparru bat bermatuz ere, besteak beste.

9.c. Nabarmen areagotzea informazioaren eta komunikazioen teknologiarako sarbidea, eta, hemendik 2020ra, aurrerapen txikieneko herrialdeei Internetarako sarbide unibertsala eta arrazoizkoa emateko ahalegina egitea.

## **10. helburua. Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea.**

10.1 Hemendik 2030era, biztanle pobreenen % 40ren diru-sarrerek pixkanaka batezbesteko nazionala igaro dezatela eta kopuru horietan jarrai dezala lortzea.

10.2 Hemendik 2030era, pertsona guztien gizarte-, ekonomia- eta politika-inklusioa indartzea eta sustatzea, beren adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera edonolakoa izanda ere.

10.3 Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea, baita horretarako diskriminaziozko legeak, politikak eta praktikak kendu egin behar badira ere, alde horretatik egokiak diren legeak, politikak eta neurriak ezartzeko.

10.4 Politikak ezartzea (bereziki, zergei, soldatei eta gizarte-babesari lotutakoak), eta pixkanaka gero eta berdintasun handiagoa lortzea.

10.5 Erakundeen eta munduko finantza-merkatuen araudia eta zaintza hobetzea, eta araudi horien aplikazioa sendotzea.

10.6 Garapen-bidean dauden herrialdeen ordezkariak eta esku-hartze handiagoa bermatzea nazioarteko ekonomia- eta finantza-erakundeek hartutako erabakietan, erakunde horien eraginkortasuna, fidagarritasuna, kontuak eta legitimotasuna hobetzeko.

10.7 Pertsonen migrazio eta mugikortasun ordenatua, segurua, arautua eta arduratsua ahalbidetzea, baita migrazio-politika planifikatuak eta ondo kudeatuak aplikatuta ere.

10.a. Tratu berezi eta bereziaren printzipioa aplikatzea garapen-bidean dauden herrialdeentzat, bereziki aurrerapen txikieneko herrialdeentzat, bat etorritik Munduko Merkataritza Antolakundearen hitzarmenekin.

10.b. Finantza-garapen eta -korranteetarako laguntza ofiziala sustatzea, atzerriko inbertsio zuzena barne, behar handienak dituzten estatuentzat; bereziki, aurrerapen txikieneko herrialdeentzat, Afrikako herrialdeentzat, garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiak eta garapen-bidean dauden

kostalderik gabeko herrialdeentzat, beren plan eta programa nazionalekin bat etorritik.

10.c Hemendik 2030era, % 3tik behera murriztea migratzaile-taldeen transakzio-kostuak eta % 5etik goragoko kostua duten migratzaileen igarobideak.

**11. helburua. Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.**

11.1 Hemendik 2030era, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea.

11.2 Hemendik 2030era, pertsona guztientzako garraio-sistema seguru, arazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea, batez ere, garraio publikoa areagotuz eta ahultasun-egoeran dauden pertsonen beharrei arreta berezia eskainiz (emakumeak, haurrak, desgaitasunen bat dutenak eta adineko pertsonak).

11.3 Hemendik 2030era, hirigintza inklusiboa eta jasangarria areagotzea, eta baita giza kokaguneen kudeaketa parte-hartzailea, integratua eta jasangarria ere, herrialde guztietan.

11.4 Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko eta zaintzeko ahaleginak bikoiztea.

11.5 Hemendik 2030era, nabarmen murriztea hondamendien ondorioz (urarekin zerikusia dutenak barne) sortutako heriotzen eta horien eraginak jasaten dituzten pertsonen kopurua, eta nabarmen murriztea hondamendiek sortutako zuzeneko galera ekonomikoak, munduko barne-produktuarekin alderatuta, arreta berezia emanez pobreei eta ahultasun-egoeran dauden pertsonari.

11.6 Hemendik 2030era, murriztea hirietako per capita ingurumen-inpaktu negatiboa, eta arreta berezia eskaintzea airearen kalitateari eta udal-hondakinen eta beste hondakin batzuen kudeaketari.

11.7 Hemendik 2030era, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat.

11.a Hiriguneen, hiri-inguruen eta landa-eremuen arteko ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-lotura positiboak babestea, garapen nazionalaren eta eskualdekoaren plangintza sendotuz.

11.b Hemendik 2020ra, nabarmen areagotzea politika eta plan integratuak bereganatzen eta ezartzen dituzten hirien eta giza kokaguneen kopurua, inklusioa, baliabideen erabilera eraginkorra, klima-aldaketaren arintzea, klima-aldaketarako egokitzapena eta hondamendien aurkako erresilientzia hobetzeko asmoz; eta Hondamendien Arriskua Murrizteko 2015-2030 aldirako Sendaiko Esparruarekin bat etorritik, hondamendi-arriskuen kudeaketa integrala egitea eta martxan jartzea, maila guztietan.

11.c Babesa ematea aurrerapen txikieneko herrialdeei, laguntza finantzario eta teknikoaren bidez, eraikin jasangarriak eta sendoak eraiki ahal izan ditzaten, tokiko materiala erabiliz.

## **12. helburua. Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.**

12.1 Kontsumo eta Ekoizpen Modalitate Jasangarrirei buruzko Programen Hamar Urterako Esparrua aplikatzea, herrialde guztien parte-hartzearekin eta garatutako herrialdeek gidatuta, kontuan izanda garapen-bidean dauden herrialdeen garapen-maila eta ahalmenak.

12.2 Hemendik 2030era, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra egin dadila lortzea.

12.3 Hemendik 2030era, munduan, txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean alferrik galtzen diren per capita elikagaien kopurua erdira murriztea, eta elikagai-galerak murriztea ekoizpen- eta horniketa-kateetan, uztaren ondorengo galerak barne.

12.4 Hemendik 2020ra, produktu kimikoak eta hondakin guztiak ekologikoki arrazoizkoa den moduren batean kudeatzea beren bizi-zikloan, hitzartutako nazioarteko esparruekin bat etorri; eta nabarmen murriztea atmosferara, urera eta lurrera egiten dituzten isuriak, horiek giza osasunean eta ingurumenean dituzten eragin kaltegarriak arintze aldera.

12.5 Hemendik 2030era, nabarmen murriztea hondakinen sorrera, prebentzio-, murrizketa-, birziklatze- eta berrerabilpen-jardueren bitartez.

12.6 Enpresak animatzea, bereziki enpresa handiak eta transnazionalak, jardunbide jasangarriak erabiltzera eta jasangarritasunari buruzko informazioa sartzera beren txostenen aurkezpen-zikloan.

12.7 Erosketa publikoko jardunbide jasangarriak sustatzea, politika eta lehentasun nazionalekin bat etorri.

12.8 Hemendik 2030era, mundu osoko pertsonek beharrezko informazioa eta ezagutzak badituztela bermatzea, garapen jasangarriko eta naturarekin bat datorren bizi-estiloa edukitzeko.

12.a Garapen-bidean dauden herrialdeei laguntzea beren zientzia- eta teknologia-ahalmena sendotzen, kontsumo- eta ekoizpen-modalitate jasangarriagoetarantz aurrera egiteko.

12.b Garapen jasangarriko eraginak zaintzeko tresnak egitea eta aplikatzea, turismo jasangarria lortzeko asmoz, lanpostuak sor ditzan eta tokiko kultura eta produktuak susta ditzan.

12.c Ekonomiaren aurkako kontsumoak sustatzen dituzten erregai fosilentzako diru-laguntza ez eraginkorrak arrazionalizatzea, merkatuaren desitxuratzeeekin amaituz, egoera nazionalen arabera. Horretarako, zerga-sistemak berregituratu beharko dira eta diru-laguntza kaltegarriak pixkanaka kendu egin beharko dira, halakorik balego, ingurumenean duten eragina islatzeko, erabat kontuan izanda garapen-bidean dauden herrialdeen behar eta baldintza zehatzak eta beren garapenean sor ditzaketan eragin kaltegarriak murriztuz, pobreak eta komunitate kaltetuak babesteko.

### **13. helburua. Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko<sup>2</sup>**

13.1 Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuenganako erresilientzia eta horietara egokitzeko ahalmena sendotzea herrialde guztietan.

13.2 Klima-aldaketari lotutako neurriak sartzeari politika, estrategia eta plan nazionala eman.

13.3 Hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza ahalmena eta erakundeena hobetzea, klima-aldaketa murrizteko, horretara egokitzeko, bere eraginak arintzeko eta garaiz ohartarazteko.

13.a Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioan parte hartzen duten garatutako herrialdeen konpromisoa betetzea, 2020rako iturri guztietatik jasotako 100.000 milioi dolar (urtean) erabiltzea, denen artean, garapen-bidean dauden herrialdeen beharrei erantzuteko, klima-aldaketa arintzeko neurri zehatzak hartzeko eta horiek gardentasunez aplikatzeko; eta martxan jartzea Klimarako Funts Berdea, ahalik eta azkarren kapitalizatuta.

13.b Plangintza eta kudeaketa eraginkorrerako ahalmena areagotzeko mekanismoak sustatzea, klima-aldaketarekin lotuta, aurrerapen txikieneko herrialdeetan eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikietan; arreta berezia eskainiz emakumei, gazteei, tokiko komunitatei eta komunitate marjinalak.

### **14. helburua. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarriarean erabiltzea garapen jasangarriari begira**

14.1 Hemendik 2025era, mota guztietako itsas kutsadura aurreikustea eta nabarmen murriztea, bereziki, lurrean eginiko jardueren bidez sortutakoa (itsas detrituak eta elikagaien bidezko kutsadura barne).

14.2 Hemendik 2020ra, itsasoko eta kostaldeko ekosistemak modu jasangarriarean kudeatzea eta babestea, eragin kaltegarri esanguratsuak saihesteko. Horretarako, sendotu egin beharko dira eta horiek leheneratzeko neurriak hartu beharko dira, ozeanoen osasuna eta produktibitatea berreskuratzeko aldera.

14.3 Ozeanoak azidotzearen eraginak murriztea eta horiei aurre egitea, baita maila guztietan lankidetzaz zientifiko handiagoa martxan jarri ere.

14.4 Hemendik 2020ra, modu eraginkorrean arautzea arrantza-ustiapena eta amaiera ematea gehiegizko arrantzari, legez kanpokoari, aitortu gabekoari eta arautu gabekoari, baita arrantza-jardunbide suntsitzaileei ere; horrez gain, oinarri zientifikoa duten kudeaketa-planak aplikatzea, arrain-populazioak berrezartze aldera ahalik eta epe motzenera, beren ezaugarri biologikoen arabera ahalik eta errendimendu jasangarriena eman dezaketen maila iritsiz.

14.5 Hemendik 2020ra, kostaldean eta marinel-eremuen % 10, gutxienez, kontserbatzea, lege nazionalarekin eta nazioarteko zuzenbidearekin bat etorriz eta oinarri gisa erabilgarri dagoen informazio zientifiko hoberean erabiliz.

---

<sup>2</sup> \*Badakigu Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa nazioarteko gobernu arteko foro nagusia dela klima-aldaketari eman beharreko mundu-mailako erantzuna negoziatzeko

14.6 Hemendik 2020ra, arrantzari emateko diru-laguntza mota batzuk debekatzea, ahalmenen gaineko arrantza eta gehiegizko arrantza ahalbidetzen dituztelako; kentzea, halaber, legez kanpoko arrantza, aitortu gabekoa eta arautu gabekoa ahalbidetzen duten diru-laguntzak; eta mota horretako diru-laguntza gehiago ez sortzea. Ildo horretan, Munduko Merkataritza Antolakundearen esparruan egiten diren arrantzarako diru-laguntzei buruzko negoziazioek barne hartu behar dute tratu berezi eta berezi bat, garapen-bidean eta aurrerapen txikieneko herrialdeentzako egokia eta eraginkorra.<sup>3</sup>

14.7 Hemendik 2030era, areagotzea garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiek eta aurrerapen txikieneko herrialdeek beren itsas baliabideak jasangarritasunez erabiltzean lortzen dituzten irabazi ekonomikoak, bereziki, arrantzaren, akuikulturaren eta turismoaren kudeaketa jasangarriaren bidez lortzen dituztenak.

14.a Ezagutza zientifikoak areagotzea, ikerketa-ahalmena garatzea eta itsas teknologia transferitzea, Gobernu Arteko Ozeanografia Batzordearen Itsas Teknologia Transferitzeko Irizpideak eta Gidalerroak kontuan hartuz, ozeanoen osasuna hobetzeko eta itsas biodibertsitateak garapen-bidean dauden herrialdeei egiten dien ekarpena areagotzea, bereziki, garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiei eta aurrerapen txikieneko herrialdeei.

14.b Artisau-arrantzaleek itsas baliabideak eskuratzeko eta merkatuetara sartzeko dituzten aukerak areagotzea.

14.c Ozeanoen eta horien baliabideen kontserbazioa eta erabilera jasangarria hobetzea, Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioan jasotako nazioarteko zuzenbidea aplikatuz; hain zuzen ere, zuzenbide hori da ozeanoak eta bertako baliabideak zaintzeari eta jasangarritasunez erabiltzeari dagokion esparru juridikoa, "Nahi dugun etorkizuna" agiriaren 158. paragrafoak zehazten duen moduan.

**15. helburua. Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzeta eta modu jasangarriean erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarriean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.**

15.1 Hemendik 2020ra, lurreko ekosistemen eta ur gezaren barne-ekosistemen eta horien zerbitzuen zaintza, berrezarpena eta erabilera jasangarria bermatzea, bereziki hauena: basoak, hezeguneak, mendiak eta gune lehorrak; hori guztia, bat etorri nazioarteko hitzarmenen bidez ezarritako betebeharrekin.

15.2 Hemendik 2020ra, martxan jartzea baso-mota guztien kudeaketa jasangarria, deforestazioa geldiaraztea, degradatutako basoak berreskuratzea eta basotzea nahiz basoberritzea nabarmen areagotzea mundu-mailan.

15.3 Hemendik 2030era, desertifikazioari aurka egitea, lur eta lurzorua degradatuak birgaitzea (desertifikazioek, lehorteek eta uholdeek kaltetutako lurrak barne) eta lurzoruaren degradazioan eragin neutroa izango duen mundu bat lortzen saiatzea.

---

<sup>3</sup> Kontuan hartuta Munduko Merkataritza Antolakundeak martxan dituen negoziazioak, Garapenerako Doha Programa eta Hong Kongeko Ministerio Adierazpeneko agindua.

15.4 Hemendik 2030era, ekosistema menditsuen kontserbazioa bermatzea, horien dibertsitate biologikoa barne, garapen jasangarrirako funtsezko onurak emateko duten ahalmena hobetze aldera.

15.5 Neurri premiazko eta esanguratsuak hartzea, habitat naturalen degradazioa murrizteko, biodibertsitatearen galera geldiarazteko eta, hemendik 2020ra, mehatxatutako espezieak babesteko eta desagertu daitezela saihesteko.

15.6 Parte-hartze zuzena eta bidezkoa sustatzea baliabide genetikoak erabiltzearen ondoriozko irabazietan, eta baliabide horietarako sarbide egokia sustatzea, nazioartean hitzartutakoaren arabera.

15.7 Premiazko neurriak hartzea ezkutuko ehizari eta flora- eta fauna-espezie babestuen trafikoari amaiera emateko, eta flora- eta fauna-produktu basatien legez kanpoko eskari nahiz eskaintzari aurre egiteko.

15.8 Hemendik 2020ra, espezie exotiko inbaditzaileak sar daitezela prebenitzeko eta horiek lurreko nahiz uretako ekosistemetan dituzten eraginak nabarmen murrizteko neurriak hartzea, eta lehentasunezko espezieak kontrolatzea edo desagerraraztea.

15.9 Hemendik 2020ra, ekosistemen eta biodibertsitatearen balioak sartzeari plangintzan, garapen-prozesuetan, pobrezia murrizteko estrategietan eta kontabilitate nazionaletan eta tokikoetan.

15.a Iturri guztietatik datozen finantza-baliabideak mobilizatzea eta nabarmen areagotzea, biodibertsitatea eta ekosistemak zaintzeko eta jasangarritasunez erabiltzeko.

15.b Iturri guztietako eta maila guztietako baliabide esanguratsuak mobilizatzea, baso-kudeaketa jasangarria finantzatzeko eta garapen-bidean dauden herrialdeei pizgarri egokiak emateko, kudeaketa hori susta dezaten; bereziki, kontserbazioari eta basoberritzeari dagokienez.

15.c Ezkutuko ehizaren eta babestutako espezieen trafikoaren aurkako borrokari mundu-mailan ematen zaion babesa areagotzea, tokiko komunitateen ahalmena areagotuz, iraupen-aukera jasangarriak lor ditzaten.

**16. helburua. Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.**

16.1 Nabarmen murriztea indarkeria-mota guztiak, eta horiei lotutako heriotza-tasak, mundu guztian.

16.2 Amaiera ematea haurren kontrako tratu txarrei, esplotazioari eta indarkeria- eta tortura-mota guztiei.

16.3 Zuzenbidezko estatua sustatzea maila nazionalean eta nazioartean, eta justizia eskuragarri izateko aukera-berdintasuna bermatzea denontzat.

16.4 Hemendik 2030era, nabarmen murriztea finantza-korronteak eta legez kanpoko armenak, lapurtutako aktiboaren berreskurapena eta itzulera sendotzea, eta antolatutako delinkuentzia-mota guztien aurka borroka egitea.

16.5 Nabarmen murriztea ustelkeria eta eroskeria, bere forma guztietan.

16.6 Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan.



16.7 Beharrei erantzungo dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta esanguratsuak hartuko direla bermatzea maila guztietan.

16.8 Garapen-bidean dauden herrialdeen parte-hartzea areagotzea eta sendotzea mundu-mailako gobernamentu-erakundeetan.

16.9 Hemendik 2030era, denok nortasun juridikoa izan dezagula ahalbidetzea, batez ere jaiotzak erregistratzearen bidez.

16.10 Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarritzko askatasunak babestea, lege nazionalekin eta nazioarteko hitzarmenekin bat etorritz.

16.a Nazioarteko erakunde egokiak indartzea, baita nazioarteko lankidetzaren bidez ere, indarkeria prebenitzeko eta terrorismoari eta delinkuentziari aurka egiteko ahalmena sortzeko, maila guztietan, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan.

16.b Diskriminaziozkoak ez diren legeak eta politikak sustatzea eta aplikatzea, garapen jasangarriaren alde.

## **17. helburua. Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarriko Munduko Ituna biziberritzea.**

### **Finantzak**

17.1 Barneko baliabideen mugikortasuna indartzea, nazioarteko babesa emanez garapen-bidean dauden herrialdeei, diru-sarrera fiskalak eta beste era batekoak biltzeko ahalmena hobetze aldera.

17.2 Garatutako herrialdeek garapenerako laguntza ofizialarekin lotutako beren konpromisoak erabat betetzen dituztela zaintzea, hainbat herrialdek hartutako honako konpromiso hau barne: diru-sarrera nazional gordinaren % 0,7 garapen-bidean dauden herrialdeen garapenerako laguntza ofizialera bideratzea, eta diru-sarrera nazional gordinaren % 0,15 eta % 0,20 artean aurrerapen txikieneko herrialdeen garapenerako laguntza ofizialera bideratzea. Garapenerako laguntza ofizialaren emaileak bultzatu dira honako hau betetzeko helburua ezar dezaten: diru-sarrera nazional gordinaren % 0,20, gutxienez, aurrerapen txikieneko herrialdeen garapenerako laguntza ofizialera bideratzea.

17.3 Hainbat iturritako finantza-baliabide gehigarriak mobilizatzea, garapen-bidean duen herrialdeentzat.

17.4 Garapen-bidean dauden herrialdeei epe luzerako zorra jasangarria izan dadin lortzeko laguntza ematea, finantziazioa sustatzera bideratutako politika koordinatuen bidez, zorra arinduz eta berregituratuz (dagokion moduan) eta oso zorpetuta dauden herrialde pobreen kanpoko zorrari aurre eginez, gehiegizko zorpetzea murrizte aldera.

17.5 Aurrerapen txikieneko herrialdeen aldeko inbertsioak sustatzeko sistemak ezartzea eta aplikatzea.

## **Teknologia**

17.6 Eskualde-mailako eta nazioarteko Iparralde-Hegoalde eta Hegoalde-Hegoalde lankidetzak hobetzea, baita lankidetzak triangeluarra ere, honako arlo hauetan: zientzia, teknologia, berrikuntza eta horietarako sarbidea; eta ezagutzen trukea areagotzea bi aldeetan artean hitzartutako baldintzetan, egungo mekanismoen arteko koordinazioa hobetuz (bereziki, Nazio Batuei dagokienez) eta teknologiaren erabilera erraztuko duen mundu-mailako mekanismo baten bidez.

17.7 Ekologikoki arrazoizkoak diren teknologien garapena eta horiek garapen-bidean dauden herrialdeetara transferitzea, dibulгатzea eta hedatzea, baldintza onetan, baita emakida- eta lehenetsun-baldintzetan ere, aldeetan artean hitzartutakoaren arabera.

17.8 Martxan jartzea, beranduenez 2017an, teknologia-bankua eta zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloko ahalmena sortzeko babes-mekanismoa, aurrerapen txikieneko herrialdeentzat; eta teknologia instrumentalen erabilera areagotzea, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologiarena.

## **Ahalmena sortzea**

17.9 Garapen-bidean dauden herrialdeetan ahalmena sortzeko jarduera eraginkorrak eta espezifikoak gauzatzeko nazioarteko babesareagotzea, Garapen Jasangarrirako Helburu guztiak ezartzeko plan nazionalak babeste aldera, Iparralde-Hegoalde eta Hegoalde-Hegoalde lankidetzaren bitartez, eta baita lankidetzak triangeluarraren bitartez ere.

## **Merkataritza**

17.10 Alde anitzeko merkataritza-sistema unibertsal bat sustatzea, arauetan oinarritua, irekia, diskriminaziorik gabea eta bidezkoa, Munduko Merkataritza Antolakundearen esparruan, besteak beste, Garapenerako Dohako Programaren esparruko negoziazioak itxiz.

17.11 Garapen-bidean dauden herrialdeen esportazioak nabarmen areagotzea, bereziki, aurrerapen txikieneko herrialdeen parte-hartzea bikoizteko munduko esportazioetan, hemendik 2020ra.

17.12 Eskubideen eta kontingenteen merkatu libreerarako sarbidea behar bezala eta modu jasangarriean lortzea aurrerapen txikieneko herrialde guztientzat, bat etorritik Munduko Merkataritza Antolakundearen erabakiekin; horretarako, aurrerapen txikieneko herrialdeen inportazioei aplikatu dakizkiekeen lehenetsuneko eta jatorrizko arauak gardenak eta errazak izan daitezela zainduko da, eta merkatuetarako sarbidea erraztu dezatela.

## **Kontu sistemikoak**

### **Araudien eta erakundeen arteko koherentzia**

17.13 Munduko egonkortasun makroekonomikoa areagotzea, baita politiken arteko koordinazioaren eta koherentziaren bidez ere.

17.14 Garapen jasangarrirako politiken koherentzia hobetzea.

17.15 Herrialde bakoitzaren araudi-marjina eta lidergoa errespetatzea, pobrezia desagerrarazteko eta garapen jasangarrirako politikak ezartzeko eta aplikatzeko.

#### **Hainbat interesdunen arteko aliantzak**

17.16 Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna hobetzea, eta horren osagarri izango diren hainbat interesdunen arteko aliantzak ezartzea, ezagutzak, espezializazioa, teknologia eta finantza-baliabideak mobilizatzeko eta trukatzeko, herrialde guztietan, bereziki garapen-bideetan daudenetan, Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko babesak emate aldera.

17.17 Esfera publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezela sustatzea, aliantzen bidez baliabideak lortzeko esperientzia eta estrategiez baliatuz.

#### **Datuak, zaintza eta kontuak ematea**

17.18 Hemendik 2020ra, garapen-bidean dauden herrialdeei (aurrerapen txikieneko herrialdeak eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiak barne) ahalmena sortzeko emandako babesak hobetzea, datu egokien, fidagarrien eta kalitatezkoen erabilgarritasuna nabarmen areagotzeko; datu horiek honela banakatuta egon beharko dute: diru-sarrerak, sexua, adina, arraza, jatorri etnikoa, migrazio-estatusa, desgaitasuna, kokapen geografikoa eta testuinguru nazionalan egokitzen jotzen diren beste ezaugarri batzuk.

17.19 Hemendik 2030era, martxan dauden ekimenak aprobeztatzea garapen jasangarriaren arloan egindako aurrerapenak neurtzea ahalbidetuko duten zenbait adierazle sortzeko; adierazle horiek, halaber, barne-produktu gordinaren osagarri izango dira, eta garapen-bidean dauden herrialdeetan ahalmen estatistikoa sortzen lagunduko dute.

## **Ezartzeko bitartekoak eta Munduko Ituna**

60. Berretsi egiten dugu Agenda berri hau erabat ezartzeko hartu dugun konpromiso sendoa. Aitortzen dugu ezinezkoa izango dela gure helburu eta xede handinahiak betetzea Munduko Itun berritu eta hobetu bat gabe eta gure helburuak bezain handinahiak izango diren ezarpen-bitartekorik gabe. Munduko Itun berrituak mundu-mailako parte-hartze sendoa ahalbidetuko du, helburu eta xede guztiak betetzen laguntzeko. Itun horretan sartuko dira, hain zuzen ere, gobernuak, gizarte zibila, sektore pribatua, Nazio Batuen sistema eta beste erakunde batzuk, eta eskuragarri dituzten baliabide guztiak mobilizatuko dituzte.

61. Agendaren helburu eta xedeetan adierazita daude gure taldeko asmoak betetzeko beharrezkoak diren bitartekoak. Garapen Jasangarrirako Helburuetan eta 17. helburuan zehaztutako ezarpen-bitartekoei dagozkien xedeak funtsezkoak dira gure Agenda martxan jartzeko, eta gainerako helburu eta xede guztiek bezainbesteko garrantzia dute. Hori dela eta, lehentasun bera emango diegu gure ezarpen-jardueretan eta gure aurrerapenen segimendua egiteko erabilitako mundu-mailako adierazle artean.

62. Agenda hau, Garapen Jasangarrirako Helburuak barne, bete ahal izango da baldin eta Garapen Jasangarrirako Munduko Itun berritu bat eratzen

badugu, Addis Abebako Ekintza Agendan<sup>4</sup> ezarritako politiken eta neurri zehatzen babesarekin; izan ere, Agenda hori Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren zati da. Addis Abebako Ekintza Agenda euskarri, osagarri eta testuinguru gisa erabiliko dugu Agenda 2030 ezartzeko bitartekoei dagozkien xedeak betetzeko. Bertan, honako arlo hauek lantzen dira: baliabide nazional publikoak; finantza- eta merkataritza-jarduera pribatua, nazionala eta nazioartekoa; garapenerako nazioarteko lankidetzak; nazioarteko merkataritza garapen-eragile gisa; zorra eta zorraren jasangarritasuna; kontu sistemikoen tratamendua; zientzia, teknologia, berrikuntza eta ahalmen-sorkuntza; eta datuak, zaintza eta segimendua.

63. Gure ahalmenak garapen jasangarrirako estrategia kohesionatuak eta titulartasun nazionalakoak eratzera bideratuko ditugu, oinarri gisa finantziario-esparru integratu eta nazionala izango dituztenak. Azpimarratu behar dugu herrialde bakoitza dela bere garapen ekonomiko eta sozialaren arduraduna eta garrantzi berezia dutela garapenerako politika eta estrategia nazionalak. Errespetatu egingo dugu herrialde bakoitzaren araudi-marjina eta lidergoa, pobreziaarekin amaitzeko eta garapen jasangarria sustatzeko politikak martxan jartzeko; betiere, dagozkion nazioarteko arauekin eta konpromisoekin bat etorritik. Bestalde, garapenaren aldeko ahalegin nazionalak nazioarteko ingurune ekonomiko egokiaren babesa izan behar dute; ingurune horrek merkataritza-, moneta- eta finantza-sistema koherenteak eta elkarri babesa ematen diotenak behar ditu, baita mundu-mailako gobernamentu ekonomiko sendotua eta hobetua ere. Funtsezkoak dira, halaber, mundu-mailan ezagutza eta teknologia egokiak garatuko dituzten eta horiek eskuragarri egotea ahalbidetuko duten prozesuak, baita ahalmena sortzeko prozesuak ere. Konpromisoa hartzen dugu politiken arteko koherentzia eta garapen jasangarrirako ingurune egokia sustatzeko, maila guztietan eta erakunde guztien parte-hartzearekin; baita Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna berritzeko ere.

64. Estrategia eta ekintza-programa egokiak gauza daitezela babesten dugu, esaterako honako hauek: Istanbulgo Adierazpena eta Ekintza Programa, Garapen Bidean dauden Uharte-Estatu Txikiak Ekintza Bizkortuko Modalitateak eta garapen bidean dauden kostalderik gabeko herrialdeen aldeko 2014-2024 aldirako Vienako Ekintza. Horrez gain, Afrikar Batasunaren 2063 Agenda eta Afrikaren Garapenerako Itun Berriko programa babestearen garrantzia berresten dugu, tresna horiek Agenda berriaren parte baitira. Aitortzen dugu, halaber, oztopo handiak daudela bake eta garapen jasangarria lortzeko gatazka-egoeran edo gatazka ondorengo egoeran dauden herrialdeetan.

65. Aitortzen dugu diru-sarrera ertainak dituzten herrialdeek zailtasun izugarriak izaten jarraitzen dutela garapen jasangarria lortzeko. Orain arte eginiko lorpenei beren horretan euste aldera, areagotu egin behar dira egungo erronkei aurre egiteko ahaleginak, esperientziak trukaturik, hobeto koordinaturik eta garapenari emandako babes espezifikoak hobetuz (Nazio Batuen, nazioarteko finantza-erakundeen, eskualde-mailako antolakundeen eta beste interesdun batzuen aldetik).

66. Nabarmentzen dugu herrialde guztietan funtsezkoak direla titulartasun nazionalaren babesa duten politika publikoak eta baliabide nazionalen

---

<sup>4</sup> Garapenerako Finantziarioari buruzko Nazioarteko Hirugarren Biltzarreko Addis Abebako Ekintza Agenda (Addis Abebako Ekintza Agenda), 2015eko uztailaren 27ko Batzar Nagusian onetsia (69/313 Ebazpena).

mobilizazioa eta erabilera, garapen jasangarriaren helburu komuna betetzeko (Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzea barne). Aitortzen dugu, batez ere hazkunde ekonomikoa dela baliabide nazionalak sortzen dituen, ingurune egokiaren babesarekin, maila guztietan.

67. Enpresa-jarduera, inbertsio eta berrikuntza pribatuak dira produktibitatearen, hazkuntza ekonomiko inklusiboaren eta enplegu-sorreraren eragile nagusiak. Aitortzen dugu sektore pribatua anitza dela, eta barne hartzen dituela bai mikroenpresak bai kooperatiba eta multinazionalak. Enpresa guztiak bultzatzen ditugu beren sormena eta berrikuntza erabiltzera garapen jasangarriarekin lotutako arazoak konpontzeko. Enpresa-sektore dinamiko eta eraginkorra sustatuko dugu, aldi berean lan-eskubideak eta osasun- eta ingurumen-eskakizunak babestuz, bat etorritik dagozkion nazioarteko arau eta hitzarmenekin eta arlo honetan gauzatzen ari diren beste ekimen batzuekin; horien artean daude, esaterako, Lanaren Nazioarteko Erakundearen Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko Printzipio Gidariak eta laneko arauak, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, eta alde anitzeko ingurumen-hitzarmen nagusiak (horietan parte hartzen dutenentzat).

68. Nazioarteko merkataritzak hazkunde ekonomiko inklusiboa eta pobreziaren murrizketa eragiten ditu, eta garapen jasangarria sustatzen laguntzen du. Merkataritza unibertsalerako alde anitzeko sistema bat sustatzen jarraituko dugu, arauetan oinarritua, irekia, gardena, auresateko modukoa, inklusiboa, diskriminaziorik gabea eta bidezkoa, Munduko Merkataritza Antolakundearen esparruan, baita merkataritzaren benetako liberalizazioa ere. Munduko Merkataritza Antolakundeko kide guztiak bultzatzen ditugu beren ahaleginak areagotzera, Garapenerako Dohako Programari buruzko negoziazioak ahalik eta azkarren amaitu daitezten. Garrantzi handia ematen diogu merkataritzari lotutako ahalmena sortzeari, garapen-bidean dauden herrialdeetan, hauek barne: Afrikako herrialdeak, aurrerapen txikieneko herrialdeak, garapen-bidean dauden kostalderik gabeko herrialdeak, garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiak eta diru-sarrerara ertainak dituzten herrialdeak. Uste dugu ahalmena sortzeak garrantzi handia duela, baita eskualde-mailako integrazio ekonomikoa eta interkonektibitatea sustatzeko ere.

69. Aitortzen dugu beharrezkoa dela garapen-bidean dauden herrialdeei laguntzea epe luzearako zorra jasangarria izan dadin, honako helburu hauek izango dituzten politika koordinatuen bidez: finantziarioa sustatzea eta zorra arintzea, berregituratzea eta arrazionalki kudeatzea, une bakoitzean dagokionaren arabera. Herrialde askok ahulak izaten jarraitzen dute zorraren krisien aurrean eta batzuk krisi betean daude, aurrerapen txikieneko herrialdeetako batzuk eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiak barne, baita garatutako herrialde batzuk ere. Azpimarratzen dugu zordunek eta hartzekodunek batera lan egin behar dutela, zorpetze eutsiezineko egoerak prebenitzeko eta konpontzeko. Maileguak jasotzen dituzten herrialdeek zorpetze-maila jasangarrirei eusteko ardura dute, baina aitortzen dugu emailak ere herrialde baten zorraren jasangarritasuna kaltetu gabe jarduteko erantzukizuna dutela. Zorraren jasangarritasunari eusteko babesa emango diegu aringarria jaso duten eta zorpetze-maila jasangarriretara iritsi diren herrialdeei.

70. Hemen iragartzen dugu martxan jarriko dela Addis Abeba Ekintza Agendan ezarritako Teknologia Ahalbidetzeko Mekanismoa, Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzen laguntze aldera. Teknologia Ahalbidetzeko

Mekanismoak lankidetzaz-esparru anizkoitza izango du oinarri, honako hauen artekoa: estatu kideak, gizarte zibila, sektore pribatua, komunitate zientifikoa, Nazio Batuen erakundeak eta beste interesdun batzuk. Barne hartuko ditu Garapen Jasangarrirako Helburuen alde lan egingo duen Nazio Batuen erakundearen arteko lantalde bat (zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arlokoa); Garapen Jasangarrirako Helburuen alde arituko diren zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloko hainbat interesdunen artean ostatutako lankidetzaz-foro bat; eta online plataforma bat.

- Garapen Jasangarrirako Helburuen alde lan egingo duen Nazio Batuen erakundearen arteko lantaldeak (zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arlokoa) koordinazioa, koherentzia eta lankidetzaz sustatuko ditu Nazio Batuen sistemaren barnean, zientziarekin, teknologiarekin eta berrikuntzarekin zerikusia duten alorretan, sinergiak eta eraginkortasuna areagotuz, bereziki, ahalmena sortzeko ekimenak hobetzeko. Lantaldeak eskuragarri dituen baliabideak aprobetxatuko ditu eta gizarte zibileko, sektore pribatuko eta komunitate zientifikoko hamar ordezkariarekin batera lan egingo du, Garapen Jasangarrirako Helburuen alde arituko diren zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloko hainbat interesdunen arteko lankidetzaz-foroko bilkurak prestatzeko, eta online plataforma martxan jartzeko. Horrez gain, foroaren eta plataformaren modalitateetarako proposamenak ere egingo ditu. Hamar ordezkariak idazkari nagusiak izendatuko ditu, bi urteko aldiatarako. Nazio batuen erakunde, funts eta programa guztiek, eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko batzorde organiko guztiek, parte hartu ahal izango dute lantaldean. Hasiera batean, gaur egun teknologia ahalbidetzeari buruzko lantalde ofiziosoa osatzen duten erakundeek osatuko dute hori ere: Idazkaritzaren Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Saila, Nazio Batuen Ingurumenerako Programa, Garapen Industrialerako Nazio Batuen Erakundea, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea, Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Hitzaldia, Telekomunikazioen Nazioarteko Batasuna, Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundea eta Munduko Bankua.
- Online plataforma erabiliko da Nazio Batuen barnean eta bertatik kanpo dauden zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloko ekimenei, mekanismoen eta programen erregistro osatu bat ezartzeko, eta baita tresna horiei buruzko informazio-atari gisa ere. Plataformak informazioa, ezagutzak eta lortutako esperientzia ikustea ahalbidetuko du, baita jardunbide egokiak eta ikasitako ikasgaiak ere, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloko ekimenei eta politikei buruzkoak. Horrez gain, egokitzen jotzen diren mundu osoko sarbide libreko argitalpen zientifikoak hedatzeko ere balio izango du. Plataforma ebaluazio tekniko independente batetik abiatuta egingo da. Ebaluazio horrek kontuan izango ditu jardunbide egokiak eta beste ekimen batzuetatik (Nazio Batuen barnekoak eta kanpokoak) ateratako irakaskuntzak, honako helburu hauekin: egun martxan dauden zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-plataformak osatzea; horietarako sarbidea ahalbidetzea; eta horiei buruzko informazio egokia ematea, hori errepikatzea saihestuz eta sinergiak areagotuz.
- Garapen Jasangarrirako Helburuen alde arituko diren zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloko hainbat interesdunen artean ostatutako lankidetzaz-foroa urtean behin bilduko da, bi egunez, Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko hainbat alorretako

lankidetzari buruz eztabaidatzeko. Bertan bilduko dira dagozkion interesdun guztiak, bilkuretan aktiboki parte har dezaten, beren espezializazio-esparruan. Foroak eskumeneko aldean eta interesdunen aliantzen arteko elkarrekintza, bitartekotza eta sareak sortzea ahalbidetuko du, behar eta hutsune teknologikoak zehazte eta aztertze aldera (lankidetzan, berrikuntzan eta ahalmen zientifikoaren sorkuntzan daudenak barne), eta baita Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko egokitzat jotzen diren teknologiak garatzen, transferitzen eta hedatzen laguntzeko ere. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko presidentek egingo ditu foroaren bilkuretarako deialdiak, goi-mailako foro politikoaren bilkuren aurretik (Kontseiluaren babesarekin) edo beste foro eta hitzaldi batzuekin batera edo horien antolatzaileekin lankidetzan, aztertutako gaiak kontuan izanda une bakoitzean dagokionaren arabera. Bi estatu kidek gidatuko dituzte foroaren bilkurak eta eztabaidak laburtuko dituzten bi presidentekide egongo dira, goi-mailako foro politikoaren bilkurarako ekarpen gisa, 2015etik aurrerako garapenerako agendaren segimenduaren eta azterketaren testuinguruan.

- Hainbat interesdunen foroaren laburpenen berri emango da goi-mailako foro politikoaren bilkuretan. Garapen Jasangarrirako Helburuen alde arituko diren zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloko hainbat interesdunen artean ostatutako lankidetzako foroaren hurrengo bilkurako gaiak garapen jasangarriari buruzko goi-mailako foro politikoak aztertuko ditu, lantaldeko adituen ekarpenak kontuan izanda.

71. Azpimarratu nahi dugu, batetik, Agenda honen eta Garapen Jasangarrirako Helburuen izaera unibertsala, zatiezina eta elkarren artean erlazionatua, eta baita horren xedeak ere, ezartzeko bitartekoak barne.

### **Segimendua eta azterketa**

72. Datozen 15 urteetan Agenda honen ezarpenaren segimendu- eta azterketa-prozesu sistematiko batean parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu. Segimendu- eta azterketa-esparru solidoa, borondatezkoa, eraginkorra, parte-hartzailea, gardena eta integratua; hori funtsezkoa izango da Agenda ezartzeko, eta herrialdeei ildo horretan egiten dituzten aurrerapenak areagotzen eta zaintzen lagunduko die, inor atzean gera ez dadin.

73. Esparru hau nazio-, eskualde- eta mundu-mailan aplikatuko da eta gure herritarrei kontuak ematea sustatuko du, nazioarteko lankidetzako eraginkorra babestuko du Agenda betetzeko garaian eta jardunbide egokien trukea eta elkarrengandiko ikasketa sustatuko ditu. Horrez gain, babesa mobilizatuko du, ohiko erronkak gaitzeko eta arazo berriak eta sortzen ari direnak detektatuko ditu. Agenda unibertsala denez, garrantzitsua izango da nazio guztien artean elkarrenganako konfiantza eta ulermena egotea.

74. Segimendu- eta azterketa-prozesuek honako printzipio hauei jarraituko diete, maila guztietan:

a) Borondatezkoak izango dira eta herrialdeek gidatuko dituzte, nazio bakoitzak garapenarekin lotuta dituen errealitate, ahalmen eta maila desberdinak hartuko dituzte kontuan, eta herrialde bakoitzaren araudi-marjinak eta lehentasunak errespetatuko dituzte. Titulartasun nazionala funtsezkoa da garapen jasangarria lortzeko. Hori dela eta, prozesu nazionalak

baliagarriak izango dira eskualde- eta mundu-mailako azterketetarako; izan ere, mundu-mailako azterketa herrialdeen datu ofizialen iturrietan oinarrituko da nagusiki.

b) Helburu eta xede unibertsalak betetzeko prozesuan eginiko aurrerapenak zainduko dituzte herrialde guztietan, ezartzeko bitartekoak barne, horien izaera unibertsala, integratua eta elkarren artean erlazionatua errespetatuz, baita garapen jasangarriaren hiru dimentsioak ere.

c) Epe luzeagorako orientazioa izango dute, eginiko lorpenak eta sortzen diren arazoak eta hutsuneak detektatuko dituzte, baita arrakasta lortzeko erabakigarriak diren faktoreak ere, eta herrialdeei behar bezala oinarritutako araudi-erabakiak hartzen lagunduko diete. Horrez gain, beharrezkoak diren ezartzeko bitartekoak eta aliantzak mobilizatzen ere lagunduko dute, baita konponbideak aurkitzen eta jardunbide egokiak ahalbidetzen ere, eta garapenerako nazioarteko sistemaren koordinazioa eta eraginkortasuna sustatuko dituzte.

d) Irekiak, barne-hartzaileak, parte-hartzaileak eta gardenak izango dira pertsona guztientzat, eta alde interesdun guztiek txostenak aurkez ditzatela sustatuko dute.

e) Pertsonak izango dituzte oinarri, kontuan izango dituzte genero-kontuak, giza eskubideak errespetatuko dituzte eta arreta berezia eskainiko diete pobreenei, ahulenei eta atzeratuenei.

f) Lehendik dauden prozesuak eta plataformak aprobetxatuko dituzte, halakorik badago, bikoizketak saihestuko dituzte eta egoera, ahalmen, behar eta lehentasun nazionaleri erantzuniko diete. Denborarekin aldatu egingo dira, sortzen diren arazo berriak eta metodologia berrien garapena kontuan hartuta, eta ahalik eta gehien murriztuko dute administrazio nazionalentzat txostenak aurkezteak sorrarazten duen karga.

g) Zorrotzak eta oinarri enpirikodunak izango dira, herrialdeek zuzendutako ebaluazioetan eta kalitatezko datuetan oinarrituko dira. Datu horiek irisgarriak, egokiak eta fidagarriak izango dira, eta banakatuta egongo dira, honako hauen arabera: sexua, adina, arraza, jatorri etnikoa, migrazio-estatusa, desgaitasuna, kokapen geografikoa eta testuinguru nazionaletan esanguratsuak diren beste ezaugarri batzuk.

h) Garapen-bidean dauden herrialdeen ahalmen-sorkuntzari babes gehiago ematea eskatuko dute, datu-sistema eta ebaluazio-programa nazionalak sendotzea barne; bereziki, Afrikako herrialdeetan, aurrerapen txikieneko herrialdeetan, garapen-bidean dauden uharte-estatu txikietan, garapen bidean dauden kostalderik gabeko herrialdeetan eta diru-sarrera ertainak dituzten herrialdeetan.

i) Nazio Batuen sistemaren eta alde anitzeko beste erakunde batzuen babes aktiboa izango dute.

75. Helburuen eta xedeen segimendua eta azterketa egiteko, mundu-mailako zenbait adierazle eta estatu kideek sortutako eskualde- eta nazio-mailako beste hainbat adierazle erabiliko dira. Horrez gain, oraindik nazio- eta mundu-mailako erreferentziako daturik ez dagoenean, xedeen erreferentziako oinarriak ezartzeko eginiko lanaren emaitzak erabiliko dira. Erakundeen Arteko Adituen Taldeak Garapen Jasangarrirako Helburuen Adierazleei buruzko egingo duen mundu-mailako adierazleen esparrua Estatistika Batzordeak adostu beharko du, beranduenez, 2016ko martxoan, eta ondoren Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak eta Batzar Nagusiak onetsi beharko dute, indarreko aginduei jarraituz. Esparru hori sinplea baina sendoa



76. Garapen-bidean dauden herrialdeei lagunduko diegu, bereziki Afrikako herrialdeei, aurrerapen txikieneko herrialdeei, garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiei eta garapen-bidean dauden kostalderik gabeko herrialdeei, bere estatistika-bulegoen eta datu estatistikoaren sistemen ahalmena sendotzen, datu egokiak, fidagarriak, banakatuak eta kalitate handikoak eskuragarri dituztela bermatzeko. Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren areagotzea dadila sustatuko dugu, gardentasunez eta kontuak emanez, datu-sorta zabal bat aprobetxatzeko, Lurraren behaketari eta informazio geoespazialari dagozkionak barne, aldi berean bermatuz herrialdeak arduratzen direla lortutako aurrerapenak babesteaz eta zaintzeaz.

77. Nazioz azpiko mailan eta nazio-, eskualde- eta mundu-mailan lortutako aurrerapenen aldizkako azterketa inklusiboetan bete-betean parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu. Ahalik eta gehien aprobetxatuko ditugu lehendik dauden erakundearen sarea eta segimendu- eta azterketa-mekanismoak. Txosten nazionalak aurrerapenak ebaluatzea eta eskualde- nahiz mundu-mailan sortzen diren arazoak detektatzea ahalbidetuko dute. Eskualde-mailako elkarriketekin eta mundu-mailako azterketekin batera, txosten horiek baliagarriak izango dira segimendua egiteko gomendioak ezartzeko, hainbat mailatan.

#### **Nazio-mailan**

78. Estatu kide guztiak animatzen ditugu Agenda hau orokorrean ezartzeko erantzun nazional handinahiak osa ditzaten, ahalik eta azkarren. Emaitza horiek Garapen Jasangarriretako Helburuetarantz aurrera egiteko trantsizio-prozesua erraztu dezakete, eta egungo plangintza-tresnak izan ditzakete oinarri gisa; esaterako, garapenerako eta garapen jasangarriko estrategia nazionalak, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

79. Estatu kideak animatzen ditugu, halaber, nazio-mailako eta nazioz azpiko aurrerapenen aldizkako azterketa inklusiboak egitera, herrialdeek gidatuta eta sustatuta. Azterketa horiek honako talde hauen ekarpenak aprobetxatu beharko dituzte: herri indigenak, gizarte zibila, sektore pribatua eta beste alde interesdun batzuk; horretarako, kontuan izan beharko dituzte herrialde bakoitzaren ezaugarriak, politikak eta lehentasunak. Parlamentu nazionalak eta beste erakunde batzuek ere babes ditzakete prozesu horiek.

#### **Eskualde-mailan**

80. Eskualde-mailako eta eskualdez azpiko segimendu- eta azterketa-prozesuak elkarrengandik ikasteko aukera bikainak sorraraz ditzake, hala dagokionean; esaterako, hauen bidez: borondatezko azterketa, jardunbide egokien trukea eta helburu komunei buruzko eztabaidak. Ildo horretan, erabat onesten dugu eskualde-mailako eta eskualdez azpiko batzorde eta erakundearen arteko lankidetzaren. Azterketa nazionalak erabiliko dira eskualde-mailako prozesu inklusiboaren oinarri gisa. Prozesu horiek mundu-mailako segimendua eta azterketa egiteko erabiliko dira, garapen jasangarriari buruzko goi-mailako foro politikoa barne.

81. Uste dugu garrantzitsua dela lehendik dauden segimendu- eta azterketa-mekanismoak aprobetxatzea eskualde-mailan, eta behar adinako

araudi-marjina uztea. Hori dela eta, estatu kide guztiak animatzen ditugu beren parte-hartzerako eskualde-mailako foro egokiena zein izango den zehaztera. Nazio Batuen eskualde-batzordeak animatzen ditugu, halaber, alderdi honetan estatu kideei laguntza ematen jarraitzera.

### **Mundu-mailan**

82. Goi-mailako foro politikoak funtsezko zeregina izango du segimendu eta azterketarako mundu-mailako prozesuen sarea gainbegiratzen; horrez gain, koherentziaz lan egingo du Batzar Nagusiarekin, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluarekin eta eskumeneko beste organo eta foro batzuekin, indarreko aginduei jarraituz. Horrez gain, esperientzien elkartrukea ahalbidetuko du (arrakastak, erronkak eta ikasitakoak), eta segimendurako lidergo politikoa, orientazioa eta gomendioak emango ditu. Aldi berean, sistema osoko garapen jasangarrirako politiken arteko koherentzia eta koordinazioa sustatuko ditu. Bestalde, Agendak egokia eta handinahia izaten jarrai dezala zainduko du, eta arreta eskainiko die eginiko aurrerapenen eta lorpenen ebaluazioari, garatutako herrialdeek eta garapen-bidean daudenek dituzten oztopoei, eta arazo berriei eta sortzen ari direnei. Lotura eraginkorrak ezarriko dira Nazio Batuei dagozkien prozesu eta hitzaldien segimendu- eta azterketa-mekanismoekin, hauei dagozkienak barne: aurrerapen txikieneko herrialdeak, garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiak eta garapen-bidean dauden kostalderik gabeko herrialdeak.

83. Goi-mailako foro politikoaren segimendu- eta azterketa-lanak Garapen Jasangarrirako Helburuetan eginiko aurrerapenei buruzko urteko txosten bat izango du oinarri. Txosten hori idazkari nagusiak egingo du, Nazio Batuen sistemarekin lankidetzan, abiapuntutzat honako datu hauek hartuta: mundu-mailako adierazleen esparrua, estatistika-sistema nazionalen datuak eta eskualde-mailan bildutako informazioa. Goi-mailako foro politikoak ere kontuan izango du Garapen jasangarriari buruzko mundu-mailako txostena. Horrek zientziaren eta politiken arteko interfazea sendotuko du, eta baliteke oinarri enpirikodun tresna solido bat ematea, araudiaren arduradunei laguntzeko pobreziaren amaiera eta garapen jasangarria sustatzen. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko presidenteari gonbit egiten diogu mundu-mailako txostenaren irismenari, metodologiari eta aldizkakotasunari buruzko kontsulta-prozesu bat egin dezan, baita urteko txostenarekin duen erlazioari buruzkoa ere. Kontsulta-prozesu horren emaitza 2016an egingo den goi-mailako foro politikoko bilkuren aldiko ministro-adierazpenean islatu beharko da.

84. Goi-mailako foro politikoak, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren babesarekin, aldizkako azterketak egingo ditu, 2013ko uztailearen 9ko Batzar Nagusiko 67/290 Ebazpenean ezarritakoarekin bat etorritik. Azterketak borondatezkoak izango dira, baina txostenak aurkezteko eskaera egingo da. Garatutako herrialdeak eta garapen-bidean daudenak izango dira aztergai, baita Nazio Batuen eskumeneko erakundeak eta beste alde interesdun batzuk ere, hala nola, gizarte zibila eta sektore pribatua. Estatuak zuzenduko dituzte eta horietan ministerioetako ordezkariak eta eskumeneko beste goi-mailako parte-hartzaile batzuk egingo dira. Azterketak aliantzak eratzeko plataforma gisa erabili ahal izango dira, besteak beste, talde nagusien eta gainerako interesdunen parte-hartzearen bitartez.

85. Goi-mailako foro politikoan Garapen Jasangarrirako Helburuei dagokienez eginiko aurrerapenen gaikako azterketak ere egingo dira (zeharkako gaiak barne). Azterketa horiek Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko

batzorde organikoek eta gobernu arteko beste organo eta foro batzuek gauzatzen dituzten azterketen babesak izango dute, eta jaso egin beharko dute horien arteko helburuen eta loturen izaera integratua. Azterketek egokitzat jotzen diren interesdun guztien parte-hartzea izango dute eta, ahal den neurrian, ekarpenak egingo dizkiote goi-mailako foro politikoari, eta horrekin bat etorriko dira.

86. Erabat onesten dugu garapenerako finantziazioaren emaitzen azterketa- eta segimendu-prozesu berezia, baita Garapen Jasangarrirako Helburuak ezartzeko bitarteko guztiena ere. Horiek Addis Abebako Ekintza Agendan aipatzen dira eta Agenda honen segimendu- eta azterketa-esparruan sartzen dira. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren urteko foroan sortutako garapenerako finantziario buruzko ondorioak eta gomendioak, gobernuen artean erabakitakoak, goi-mailako foro politikoan egiten den Agenda hau ezartzeko segimendu- eta azterketa-prozesura sartuko dira.

87. Goi-mailako foro politikoak lau urtez behin bilduko da, Batzar Nagusiaren babespean, eta Agendari eta horren ezarpenari buruzko goi-mailako orientazio politikoak emango du, eginiko aurrerapenak eta sortzen ari diren arazoak detektatuko ditu, eta ezarpena bizkortzeko neurri berriak mobilizatuko ditu. Batzar Nagusiaren babesarekin antolatutako goi-mailako foro politikoaren hurrengo bilkura 2019an egingo da. Bertan, hasiera emango zaio bilkuren ziklo berri bati, politikaren lau urtez behingo berrikuste-prozesu zabalarekin ahalik eta koherentzia gehien lortzeko asmoz.

88. Nabarmendu behar dugu, halaber, garrantzitsua dela sistema osoan zehar plangintza estrategikoa, ezarpena eta txostenen aurkezpena egitea, Nazio Batuen garapenerako sistemak babes koherentea eta integratua eman diezaion Agenda berriaren ezarpenari. Eskumeneko organo gidariek neurriak hartu beharko dituzte ezarpenaren babes hori aztertzeko, eta eginiko aurrerapenei eta aurkitutako oztopoei buruzko informazioa eman beharko dute. Erabat onesten dugu Ekonomia eta Gizarte Kontseilua izaten ari den elkarrizketa, Nazio Batuen garapenerako sistemaren epe luzeagorako posizionamenduari buruzkoa, eta interes handia dugu gai horiei dagozkien neurriak hartzeko, hala dagokionean.

89. Goi-mailako foro politikoak babestu egingo du talde nagusiek eta beste interesdun batzuek segimendu- eta azterketa-prozesuetan duten parte-hartzea, bat etorri 67/290 Ebazpenarekin. Talde horiek bultzatzen ditugu Agenda ezartzeko egiten dituzten ekarpenei buruzko informazioa eman dezaten.

90. Idazkari nagusiari eskatzen diogu txosten bat egin dezala, estatu kideei kontsulta egin ondoren. Batzar Nagusiak aztertuko du txosten hori, bere hirurogeita hamargarren bilkura-aldian, 2016an egingo den goi-mailako foro politikoaren bilkura prestatze aldera. Horretarako, mundu-mailako segimendu- eta azterketa-prozesu koherente, eraginkor eta inklusibo bat osatzeko behar-beharrezkoak diren gertakariak adieraziko ditu. Txostenak azterketen antolamenduari buruzko proposamen bat barne hartuko du. Azterketak estatuek zuzenduko dituzte eta goi-mailako foro politikoan egingo dira, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren babespean. Horrez gain, borondatezko txostenak aurkezteko gidalerro komunei buruzko gomendioak ere izango ditu txostenak. Bestalde, erakundeen erantzukizunak argi utziko ditu eta orientazioa emango du urteko gaiei buruz, gaien arabera azterketa batzuei buruz eta goi-mailako foro politikoaren aldizkako azterketak egiteko aukerei buruz.

91. Azpimarratu nahi dugu konpromiso sendoa dugula Agenda hau betetzeko eta ahalik eta hoberen erabiltzeko, hemendik 2030era gure mundua leku hobea bihurtzeko asmoz.

---





**UNITED NATIONS**

[sustainabledevelopment.un.org](https://sustainabledevelopment.un.org)